

Año LXXXVI. urtea

291 - 2025

Enero-abril
Urtarrila-apirila



Príncipe de Viana

SEPARATA

Sistema jasangarri baten
ezarpena Urdazubi
eta Zugarramurdiko
baso eta mendietan
antzin erregimenean,
menpekotasun, zailtasun
eta gatazken gainetik

Álvaro Aragón Ruano



Sumario / Aurkibidea

Príncipe de Viana

Año LXXXVI • n.º 291 • enero-abril de 2025
LXXXVI. urtea • 291. zk. • 2025eko urtarrila-apirila

ARTE / ARTEA

La Casa del Papa o Casa de las Pinturas en Pamplona: promotores y artífices María Jesús García Camón	9
---	---

HISTORIA

Sistema jasangarri baten ezarpena Urdazubi eta Zugarramurdiko baso eta mendietan antzin erregimenean, menpekotasun, zailtasun eta gatazken gainetik Álvaro Aragón Ruano	47
--	----

Acerca de la autoría de las <i>Bases bajo las cuales Navarra y las Provincias Vascongadas seguirán adheridas a la monarquía de Carlos V</i> , publicadas en 1838 Javier Díaz de Cerio Fernández	77
--	----

El licenciado Joan de Nantes, abad de Aldaba (1595-1636) Josetxo Músquiz Pérez de Zabalza	95
--	----

LOS TRABAJOS Y LOS DÍAS DEL AÑO 2024 / 2024ko LANAK ETA EGUNAK

Tesis doctorales sobre temática navarra de ciencias humanas, sociales y jurídicas, leídas en 2024 (Según la Base de datos Teseo del Ministerio de Educación)	127
---	-----

Autores navarros en castellano, año 2024 Mikel Zuza Viniegra	141
---	-----

Noticias sobre etnografía, folclore y cultura tradicional en 2024 David Mariezkurrena Iturmendi	145
--	-----

Sumario / Aurkibidea

Ser artista en Navarra. ¿Una profesión posible? Mireya Martín Larumbe	159
2024ko nafarroako euskal literatura Ángel Erro Jiménez	167
UPNAPASS: un pasaporte digital para recoger la formación complementaria del estudiantado universitario Cristina Bayona Sáez	175
Investigación y divulgación del patrimonio cultural navarro en 2024 Yolanda Cagigas Ocejo	183
Tiempos verbales. Cultura audiovisual como referente para un futuro imperfecto Marga Gutiérrez Díez	191
Entrevista a Alfredo Sanzol, Premio Príncipe de Viana de la Cultura 2024 Alicia Ezker Calvo	203
Discurso pronunciado por Alfredo Sanzol en la entrega del Premio Príncipe de Viana de la Cultura 2024 Alfredo Sanzol	217
Currículums	219
Analytic Summary	223
Normas para la presentación de originales / Idazlanak aurkezteko arauak / Rules for the submission of originals	225

Sistema jasangarri baten ezarpena Urdazubi eta Zugarramurdiko baso eta mendietan antzin erregimenean, menpekotasun, zailtasun eta gatazken gainetik

Implantación de un sistema sostenible en los bosques y montes de Urdazubi y Zugarramurdi en régimen antiguo, por encima de adicciones, dificultades y conflictos

The enactment of a woodland sustainable system in Urdazubi and Zugarramurdi during the ancient regime, beyond reliance, difficulties and conflicts

Álvaro Aragón Ruano
Filología eta Historia Saila (UPV/EHU)
alvaro.aragon@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0003-0594-6383>

DOI: <https://doi.org/10.35462/pv291.2>

Ikerketa hau «Euskal Herria, Europa eta Amerika. Lotura eta harreman atlantiarrak» Euskal Unibertsitate Sistemaren ikerketa talde kontsolidatua (GIU21/062) barruan burutu da.

Recepción del original: 15/05/-2024. Aceptación provisional: 29/08/2024. Acetación definitiva: 10/09/2024.

LABURPENA

Urdazubi eta Zugarramurdiko ekonomia basogintzan, abeltzaintzan, burdingintzan eta nekazaritzan oinarritu zen XIX.mendera arte. Herrixka moduan sortu zirenetik, Urdazubiko Monastegiaren menpe, bien arazorik nagusiena mendi propiorik ez zutela izan zen, eta, ondorioz, Baztan Haraneko herri lurak ustiatzera behartuak zeudela, baina era mugatuan, ez auzoko bezala, hori monastegiari baitzegokion. Lan honetan, egoera berezi horren ondorioz, mendi eta baso kudeaketaren bilakaera aztertuko da XIV.mendetik XIX.mendera arte. Ikusiko den moduan, ezarritako sistema jasangarriari esker burdingintzak eta abeltzaintzak, bi jarduera nagusiek, beren baliabideen beharrak asetzen lortu zuten mendeetan zehar.

Gako hitzak: Herri lurak; basoak; abeltzaintza; burdingintza; Nafarroa.

RESUMEN

La economía de Urdazubi y Zugarramurdi se centró en la silvicultura, la ganadería, la siderurgia y la agricultura hasta el siglo XIX. Desde que surgieron como aldeas, bajo el dominio del Monasterio de Urdazubi, el principal problema de ambos fue que carecían de montes propios, lo que les obligaba a explotar las tierras comunales del Valle de Baztan, pero de forma limitada, no como barrio, que correspondía al monasterio. En este trabajo, como consecuencia de esta situación particular, se analizará la evolución de la gestión de montes y bosques desde el siglo XIV hasta el siglo XIX. Como se verá, el sistema sostenible implantado permitió que la siderurgia y la ganadería, las dos principales actividades, lograran a lo largo de los siglos satisfacer las necesidades de sus recursos.

Palabras clave: tierras comunales; bosques; ganadería; siderurgia; Navarra..

ABSTRACT

The Urdazubi and Zugarramurdi's economy was based on forestry, stockbreeding, ironworking and agriculture until the 19th century. Since they set up as small villages, under the Monastery's lordship, their main problem was that they did not owe their own woodlands, and, as a result, they were forced to take advantage of Baztan Valley's commons, but limited, since exploitation rights belonged to the Monastery. The aim of this research is to analyse, bearing in mind that special situation, the evolution of woodland's use from the 14th to the 19th centuries. As it is going to be demonstrated, due to the implementation of a sustainable exploitation, ironworking and stockbreeding, the two main activities, were able to be provided with raw materials over time.

Keywords: commons; woodland; stockbreeding; ironworking; Navarre.

1. SARRERA. 2. AUZOTASUNAREN INGURUKO ARAZOAK ETA OINARRI EKONOMIKOAREN MOLDAKETA. 3. GATAZKAK HEDAKUNTZA GARAIAN. 4. HERRI LURREN ETA ERABILPENEN ZATIKETA ETA BASO GERUZA BERRESKURATZEKO SAIAKERAK. 5. DESAMORTIZAZIOA ETA HERRI LURREN PRIBATIZAZIOA. 6. ONDORIOAK. 7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.

1. SARRERA

Nafarroa Atlantikoko bilakaera historikoa baldintzatu duten bi faktore nagusienetarikoa, alde batetik, natura eta, bestetik, bere kokapen geografikoa izan dira. Lehenengoak, naturak, zeresan handia izan du: klimak, orografiak eta landarediak abeltzaintza edota burdingintza lehenestea eragin zuten, nekazaritzaren gainetik, azken hau defizitariora baitzen (Arizcun Cela, 1988b, 41). 1868n, noiz nekazaritza zen jarduera nagusia, nekazal ekoizpenak Baztango 9.479 biztanleek behar zutena ez zuen asetzen, horregatik herriko gazteak emigratzen ari ziren: uzta onak jasota ere, artoak –ordurako gairik garrantzitsuenak– ez zuen eguneroko elikadura bermatzen eta gariak horren herena edo laurena (Arizcun Cela, 1988a, 262; Imízcoz Beunza eta Floristán Imízcoz, 1993, 210-212; Imízcoz Beunza, 2009)¹. Bigarrenak, kokapen geografikoa, mugaren abantailak eta desabantailak eskaini zizkion. Alde batetik, aipatutako bertako ekoizpenaren eskasia osatzeko aukera eman zion, kanpotik, itsasotik nahiz barrualdetik, behar ziren elikagaiak inportatzeko aukera, baina, beste aldetik, baita kontrabandoaren eta legez kanpoko ateratzeen arriskua ere, askotan bertan behar ziren gaiak galduz. Horixe da, hain zuzen ere, askotan gertatu zitzaiena Baztango Haraneko zura eta egur produktuei, are gehiago Urdazubi eta Zugarramurdiren kasuan, Frantziako mugatik gertuago baitzeuden:

que la raíz única del daño gravísimo ya padecido, y del no menor, que de no mudarse el estado de las cosas inevitablemente amenaza, es, no el uso, sino el abuso con que los dependientes de dicho monasterio y habitantes de dichos lugares de Urdax, y

1 *Libro que contiene las sentencias obtenidas por el Valle de Baztan en 1440 en pleito con el Patrimonio Real de Navarra. Información posesoria de los montes y yermos comunes y expediente sobre roturaciones y cerramientos, mandado imprimir por acuerdo de la Junta General de dicho valle*, Pamplona, Tiburcio Iriarte, 1869, 85. <https://portalcultura.navarra.es/Record/00007984> (2024ko Abuztuaren 30ean kontsultatua).

Zugarramurdi han excedido, y exceden en el uso de los gozes que les estan señalados, no solo talando los montes, con el descuydo que es regular en los que usan de cosa agena, sino mas principalmente por el lastimoso desorden de sacar a aquellos dominios de Francia increíbles cantidades de maderamen, tablazon, piperia, leña y carbon, sin que esto sea evitable, porque dichos monasterio y dos lugares confinan con los lugares de Ezpeleta, Añoa, Semper y Sara de la Provincia de Labort en legua y media de ancho poco mas o menos, y tiene su situacion de la vertiente de los Pirineos para alla, a diferencia de este valle, cuyos catorce lugares se hallan a esta parte de los Pirineos, a distancia de mas de dos leguas de dicho monasterio y lugar de Urdax, y algo mas de Zugarramurdi, por lo que es imposible que el alcalde y regidores de este valle puedan remediar el daño de la extraccion...².

Egia esan, arazo hauek amaiezinak izan ziren Nafarroa osoan bertako Gorteetan hartutako neurriek erakusten duten moduan: 1567ko 25. legea; 1576 eta 1580ko 10. eta 44. legeak; 1604ko 28. legea; 1642ko 15. eta 57. legeak, 1662ko 16. legea, 1709ko 1. Legea, eta 1748ko 10. eta 17. legeak. Gainera, Foru Bilduma Berriko 2. Legeko, 15. Tituluko 1. Liburuan Gipuzkoara eta Monarkia Hispanikoko edozein lekura egurra eta zura ateratzeko baimena, tauletan erregistratzeko baldintzarekin, tornagia aurkeztuz, eta Frantziara ateratzeko debekua ezarri ziren (Arizcun Cela, 1988b, 322-327).

Urdazubi –1665tik jurisdikzio zibil eta krimilarekin eta 1774tik hiribildu tituluarekin– eta Zugarramurdiko –1667tik jurisdikzio kriminala eta hiribildu tituluarekin– basoen historia baldintzatuta egon zen beti, Baztango Haranaren menpe, lehenbizi Urdazubiko monastegiaren baitan eta beranduago herri independenteak bezala. Urdazubi eta Zugarramurdiren beharrak anitzak ziren, baina, jarduera nagusienak basoen kudeaketan eta aprobetxamenduan oinarritu ziren: eraikuntzak, monastegiaren burdinolak, etxeko suegurra, eta ganaduen bazka.

2. AUZOTASUNAREN INGURUKO ARAZOAK ETA OINARRI EKONOMIKOAREN MOLDAKETA

Baztango Harana eta Urdazubiko monastegiaren arteko gatazkak XV. mendean hasi ziren, hedakuntza garai batean, bai demografikoa baita abeltzaintza eta nekazaritzarena ere. Urdazubik 9 etxeetan mantendu arren, Zugarramurdik 15 suetatik 30 suetara pasa zen 1432an, baso eta larre gehiagoren beharra bultzatuz. Presio demografiko horrek Baztango Haraneko mendietarantz bideratu zituen begirada guztiaz: alde batetik, Baztandarrek kanpotarren urdeak ari ziren sartzen beren basoetan, baita Kintoan ere; bestetik, monastegiaren abereak Baztandarren larreak erabili eta basoak ebakitzen ari ziren. Lehen kasuan, 1440an Nafarroako Kontu Ganberako fiskala Gipuzkoatik,

2 *Executorial insertas sentencias, concordias, varios instrumentos y alegatos, que se han producido en el pleito, que han litigado en el Real y Supremo Consejo de este Reyno de Navarra, el valle y universidad de Baztan, el Real Monasterio de San Salvador de Urdax, lugares de Zugarramurdi y Urdax, y el fiscal de su magestad*, Pamplona, Herederos de Martínez, 1748, 174. <https://liburutegibiltegi.bizkaia.eus/handle/20.500.11938/74932> (2024ko Abuztuaren 30ean kontsultatua).

Nafarroa Beheretik edo Leringo Haranetik sartutako txerriengatik *eyurdeak* kobratzen saiatu zen, baina, baztandarren argudioaren arabera, bere biztanleak kapareak zirenez zerga hori ordaintzetik salbuetsiak zeuden (Imízcoz Beunza eta Floristán Imízcoz, 1993, 198; Imízcoz Beunza, 2018, 385-410). Bianako printzeak 1441an arrazoia eman, *eyurdeak* ordaintzetik aske utzi eta beren kaparetasuna eta noblezia hobetsi zien. Bigarren kasuan, kontuan izanik monastegiak kanpotar behiekin osatutako hiru eli edo *busto* zituela –128 sarioetan banatuak– (Mitxelia, Gorrelia eta Animelia), Baztanekin partzuergo bat ezarri zuen 1482an: monastegiari eremu propio bat onartu zitzaion (*Esparru borobila*) eta Baztanek monastegiari bere herri lurak ustiatzen utzi zion, beste auzokideen baldintzetan, eta bakarrik 40 txerriekin 30 etxe zituen Zugarramurdi, Ainhoa, Landibar edo Leorlaseko baserritarrei:

dende el rio llamado y conocido por este nombre particular Orozvidea, principiando de donde se junta el regacho, que baxa de la parte de azia Echalar, que se junta con el dicho Rio en Echardeco, Urculoa, y de alli baxo continuando con el dicho rio de Orozvidea hasta la Puente de San Bladi, que esta junto al Monesterio, y de alli, subiendo por el camino de Buztingorria al regacho llamado Barreta, y por el mismo regacho abaxo hacia el rio que viene de la herreria de Añoa, y de hai abaxo, siguiendo por el mismo rio hasta la Puente de Oldicun, y desde alli abaxo hasta donde se juntan los dos rios especificados, y de alli por los mojones que estan entre los terminos de Labort, y de la dicha Jurisdiccion hasta los terminos de Echalar, y dando la buelta desde alli por junto de Ibañeta, y al mismo regacho de Echardeco, Urculoa todo lo incluso, y especificado en las dichas limitaciones³.

Behin eta berriz, Urdazubi eta Zugarramurdi ez zirela Baztango Haranaren parte argudiatu zuen Baztango Haranak, baizik eta Urdazubiko monastegiaren menpekoak, honi baitzegokion auzotasuna, eta ez haiei. Ondorioz, Urdazubik edo Zugarramurdik ezin zituzten herri lurak auzoko bezala ustiatu, ezta baztandarrek zituzten pribilegioak, foru eta abantailak izan. Baztango Harana 14 herrik osatzen zuten, eta inguruan Urdazubi, Zugarramurdi eta besteak kokatzen ziren. Baztango Harana zen Baztango herri lurren jabe bakarra; monastegiak ez zituen jabego eskubiderik eta auzoko bezala ustiatu egiten zituen, Haranaren jurisdikziopean egoteagatik. Beraz, monastegiak edota Urdazubi eta Zugarramurdiko auzokoek aldarrikatzen zuten Baztango herri lurren erabilpena ezin zela auzoko bezala egin aldarrikatzen zuten Baztanek. Monastegiak, Urdazubik eta Zugarramurdik, hirurak batera, beti Baztanen parte izan zirela aldarrikatzen zuten, eta, ondorioz, bere pribilegioz, ohorez eta erabilpenaz profitatzeko eskubidea zutela. Horren harira, 1560ko maiatzaren 17an emandako epaian Urdazubiko monastegiko baserritarrek eta biztanleak ez zutela Baztango auzotasuna eta ezin zituztela bere pribilegioak eta eskubideak erabili adierazi zuen Nafarroako Errege Kontseiluak (Imízcoz Beunza eta Floristán Imízcoz, 1993, 199-203; Imízcoz Beunza, 2009)⁴.

³ *Executorial insertas sentencias, concordias, varios instrumentos y alegatos...*, 23.

⁴ *Defensa preservativa del Valle de Bastan en la causa pendiente en el consejo, fomentada por el lugar de Urdax, pretendiendo eximirse de la jurisdicción del monasterio de este nombre e incorporarse a la corona; A cuya sombra intenta con arte introducirse en el Valle, y en la participación de sus privilegios, intereses y exenciones*, 1769. <https://binadi.navarra.es/registro/00009194> (2024ko Abuztuaren 30ean kontsultatua).

Urte batzuk beranduago, Baztango Haranak eskubide horiek blindatu egin zituen, 1582 baino lehen ezarritako udal ordenantzei esker, non argi eta garbi uzten zuten 13. ordenantzan herri lurrak (urak, bazka, belarrak, zura eta suegurra) auzokoek bakarrik ustia zitzaketela, forua errespetatuz. Bestalde, abelbideak eta pasabideak errespetatzeaz gain, herri lurretan egindako egiturak irekiak egon behar ziren, uzta jaso ostean (*derrota de mieses*). Halaber, saroietan zuhaitzak ebakitzea edo luberriak egitea debekatua zegoen. Herri lurretan borda bat eraikiz gero, besteen abereak bertan egoteko eskubidea zuten, artatxikia, garia edo gaztaina gorde ezean. Abereak ezin ziren zuhaitzietan sartu ezkurak lurrera erori arte; hauen kopurua soberazkoa izanez gero, lau gizon bildu eta bazka zitezkeen haraneko txerrien kopurua ezarriko zuten, eta faltan egonez gero, haranean bertan gizendu ezin zirenak Alduidetara bidaliko zituzten San Migeletik (irailaren 29) San Andresera arte (azaroaren 30). Lau dukateko zigorpean ezin zen zuri edo egurrik atera haranetik kanpo, eta ondotik ebakitzea edo azala kentzea debekatuta zeuden, haritzak izanik florin bat zuhaitzeko isunarekin, florin erdia pagoen kasuan, eta bi florin suegurra egiteko haritz bakoitzagatik; bakarrik zapa-tariek atera zezaketen ametzen (*Quercus Pyrenaica*) azalaren erdia. Bukatzeko, abeltzainek urtero belarra berrindartzeko egiten zituzten suteak debekatuta geratzen ziren (Zudaire Huarte, 1980, 11-19).

Dena den, inguruetan gertatzen ari zen bezala, monastegia ere bere oinarri ekonomikoak aldatzen eta moldatzen hasi zen XV. mendetik aurrera, eta abeltzaintzan oinarritzetik burdingintza indartzera igaro zen astiro-astiro. Honen atzetik bi prozesu aipa daitezke: alde batetik, monastegi eta eliz-erakundeei lotutako abeltzaintza tokian tokiko udalen eta biztanleen presioa jasaten ari zen eta, ondorioz, mugatze eta atzerakada nabarmena pairatzen; bestetik, XIV. mendetik aurrera artaldeak zabaltzen eta ugaltzen ari ziren; horren erakusle da 1603ko ordenantzetan 47. kapituluaren ardi kopuruaren mugatzea (30 buru), abere taldeen arteko oreka, baina batez ere abelgorri eta txerrien lehentasuna bermatzearen (Zudaire Huarte, 1980, 67). Ondorioz, Nafarroako Katedralak, Orreagako edo Ziortzako Kolegiatak bezalako erakundeak Kostaldean (Gipuzkoa, Bizkaia edo Aralarren) zituzten saroiak bertako udalei saldu zizkieten. Urdazubiko monastegiaren kasuan, prozesu hori XVI. mendean zehar luzatu zen, orduan piztutako gatazkek erakusten duten moduan, Gartzain, Irurita edo Lekarozeko abereak monastegiko saroietan gauzez harrapatu zituztenez⁵. 1577an Baztango Haranak monastegiak eraiki berri zuen burdinolaren suntsiketarekin erantzun zuen, bere herri lurretan kokatua zegoela aitzakiarekin. Gatazkei irtenbidea aurkitu nahian, 1580an, lehenbizi, eta 1584ko otsailean, beranduago, bitarteko epaia eman zen—1591ko otsailean berretsia izanik⁶—, eta bertan, alde batetik, monastegiari bere esparru borobila behin betiko onartu zitzaion eta mugarritua izatea agindu ere, eta bestetik, aurretik esandakoari helduta, Gorrelia eta Mitxelia eta haien 108 saroi Baztango Haranera pasa

Por el Valle y Universidad de Baztan, y los lugares de Urdax, y Zugarramurdi, aderidos a el Valle contra el monasterio de Urdax sobre confirmación que pide el Valle, y lugares aderidos, de un Auto otorgado en tres, de Diciembre de 1740 y contradice el Monasterio, 1745, 5-7. <https://binadi.navarra.es/registro/00009025> (2024ko Abuztuaren 30ean kontsultatua).

5 Archivo General de Navarra (AGN), Tribunales Reales, Procesos, 027625 eta 027661.

6 AGN, Tribunales Reales, Procesos, 236793.

ziren, Animelia monastegiarentzat geratzen zen bitartean, 27 sarioekin Baztango herri lurretan. Hogeita zazpi saroi horietan monastegiak bere abere propioak edo atzerritarrenak eduki zitzakeen, erdia Baztango Haraneko auzokorenak izateko baldintzapean. Beste bi eliak (*busto*) eta saroiak Baztangoarentzat geratzen ziren, baina monastegiak bertako egurra edo bere burdinolarako zura moztu zezakeen, betiere Baztango alkatea edo zinegotziren bat abisatuz eta mozketa bere aurrean eginez. Saroietatik kanpoko egurra eta zura ere ustia zezakeen, kanpora ez saltzeko baldintzarekin. Saroietan monastegiaren abere propioek, egunez eta gauez, baina atzerritarrek eguzkitik eguzkirako, bazka eskubidea zuten Gorrelia eta Mitxelian, eta Baztangokoek berdin Animelian⁷.

Taula 1. Mitxelia, Gorrelia eta Animelia elietako saroiak (1584)

Elia	Saroiak
Mitxelia (76)	Ederrola, Itheanola, Izanda, Zuzaz, Urtamudi edo Bidamurdi, Gurdiazar edo Gurdiazaz, Luru, Urrilegi, Obarain edo Oarikun, Lizarmeaza, Alzola, Arrozenegia, Aldoian goikoa, Aldoian behekoa, Alkurrozkobeosaroia, Alkurrozberea, Zueta, Bearastegi, Arizgoros, Arizelai, Gastelusabel, Andrebiaga, Fagasueta, Urrizpillako, Elordia, Osaliskoaga, Eskisaroi, Alsu, Orozbideberea, Meaze edo Meatela, Lizarzarai, Arralzu, Saiakun edo Saiasun, Larrakaiz, Osondo edo Otsorido, Gamiondoa edo Kaminondoa, Legarsaroi edo Egarsiroi, Arizabalo edo Antsabalo, Zozarteaga, Olasurberea, Txoporro, Olasurgaraia, Urrizordoki, Gorostegia, Geresitegia, Olaberriaga, Madariaga, Orkazlarrea, Mihurakoalzua, Ikeburua, Axular, Argindoeta, Azkar, Iguzkiegia, Iguzkikourriztegia, Lizardia, Oesu, Arizgain, Aien edo Aiero, Ibarlakoaga, Azkonobieta edo Arnolieta, Arroziesi edo Ariztiesi, Loiaga Garaia, Loiagaberea, Urbia, Ainzurieta edo Aizkikurieta, Ibañeta edo Ibaieta, Ibaietako edo Ibañetako, Urriztia, Soroandia, Etxaide Garaikoa edo Etxardegaraikoa, Etxardeberekoa edo Lezardeberekoa, Orañeta, Erebe edo Erebede goikoa, Erebe edo Erebede bekoa, Arizainzar, Azkali, Arizgain eta Orgabidea.
Gorrelia (36)	Gorostiaga, Marteginea, Girrageroetiaga, Erkanola edo Erzanola, Bagotoa, Aldasoro, Arbilisi, Izagoa, Izarbe, Izulegi, Saiarain edo Saiarni, Bagaidoi edo Fagaidoi, Legar, Lezeiri edo Legaretaidi, Idoigorrieta, Irrago edo Irrigo goikoa, Irrago edo Irrigo behekoa, Arizarrieta edo Aunzarrieta, Azkai-Zistola edo Kaskaitxistola, Sagarzazun, Lizarzola, Urrizalketa goikoa, Urrizalketa behekoa, Egiluzea, Bagazelai, Agarrola, Ainzur, Izulegi, Bagoteaga, Martiegunea eta Bagaidoia.
Animelia (27)	Arizkain Zahar, Azkabi, Organbidea, Arsua, Anurnai, Amutsa, Ainzurai, Amutsabuztan, Osisaz edo Osisate, Berkuaran, Berkastegi edo Bearkuztegi goikoa, Bearkuztegi behekoa, Orolar edo Oralar, Gorostilakoeta, Lizarlakoeta, Lizarazuzo, Lizarzu, Urriztia, Soroandia, Gurdia edo Guardia, Ararzetegi edo Aransetegi, Oreinmarruma, Zuiola edo Zuiolafagazalaga, Fagoetaga, Urkiola, Ezkelen, Kortosola edo Ortesola, Urrizpila, Sabuzodoi, Iguzkiegia, Natsarabea eta Arza.

7 *Executorial insertas sentencias, concordias, varios instrumentos y alegatos...*, 22-23. *Memorial ajustado del pleito que en grado de suplicación litiga el Real Monasterio de San Salvador de Urdax contra don Antonio Gaston de Yriarte, alcalde del Valle y Universidad de Baztan y Juan de Gintorena, jurado del Lugar de Lecaroz*, 1727, 41-52. <https://binadi.navarra.es/opac/ficha.php?informativo=00008375MO&codopac=OP-BIN&idpag=1194674594> (2024ko Abuztuaren 30ean kontsultatua).

Aipatutako bi eli horien eta beren 76 eta 36 saroien truke, monastegiari 1577an erai-tsitako burdinola berria, Azkarko endrezeran, Orozbidea errekan, Bakeola (Bakearen burdinola) izenarekin berreraikitze baimena eman zion Baztanek, hori bai, kostuak eta irabaziak erdibituz. Burdinolatik goranzko mendietan behar zituen ikatzak eta eraikin-egurrak lortzeko baimena eta bere maizterrari Baztango herri lurretan 100 ardi eta ahuntz, 12 idi, 12 behi, 24 txerri, eta mea eta burdina garraiatzeko nahi adina mando eta zaldi edukitzeko aukera eman zitzaion. *Baztangoizan* (Amaiur, Azpilkueta, Arizkun eta Erratzu) bizi zirenentzat Urtsuako, Azpilkueta, Erratzu, Hualdea edo Barazezabal jauregiek zituzten saroiak erosteko aukera ikusten zuen Baztango Haranak, haiek salmentan jarriz gero. Aldi berean, monastegiaren burdinola zaharrari Baztango herri lurretan behar zituen ikatzak eta eraikuntza egurrak ateratzeko baimena eman zitzaion. Bukatzeko, esparru borobilean bizi ziren 42 etxeek eskubidea zuten Baztango herri lurretan urak eta belarrak bazkatzeko 14 txerri eta urtebete baino gutxiagoko txerri-kumeekin, kanpoko txerririk sartu gabe eta 1482ko partzuergoa errespetatuz; trukean, Baztango Haraneko auzokoek, beste herri lurretan bezala, atzeritarren abereak eta ezarritako abere kopurutik pasatzen ziren monastegiko, Urdazubi eta Zugarramurdiko aleak esparru borobilean bazka zezaketen. Gainera, esparru borobila berriro mugarritu zen:

comenzando en Santestevan de Alquerdi, incluyendo en el todas las casas de Alquerdi, y la iglesia de Santestevan y de alli cortando a la muga o mojon de Masecoleta, y desde la dicha muga al rio de Hoholdicun a la endrecera y puesto donde se juntan los dos rios que vienen de Orozbidea y de Añoa, que es cerca de la herreria vieja del dicho Monesterio, y dende la endrecera de los dichos dos rios, por el rio de Barreta arriba a la pieza llamada Tellericolanda, que es de la casa de Machinena, dexando aquella fuera del dicho termino que señalamos para Baztan, y desde la dicha endrecera, por el camino de Buztingorrieta a la Puente de San Blas, que es cerca del dicho monesterio, y desde aquella, como corta el rio que baxa de Orozbidea hasta la endrecera mas alta de una peña, que se dice Azcar, y desde lo alto de aquella a la cumbre de Arguindurieta, y desde lo alto de Arguindurieta a la dicha iglesia de Santestevan de Alquerdi, tomando dentro las Casas que estan en Alquerdi, y particularmente las casas llamadas Martín, Zelay, Echalecu.

Taula 2. 1584n aipatutako 42 etxeak

Auzoa	Etxeak
Urdax	Matxinena, Goia, Mitxelena, Sabatena, Domixtorena, Orkaizena, Salaberria, Hospitalea, Marierrota, Etxeberria eta Bordaindia.
Leorlas	Matxingorena, Graciana Pipiarena, Petrisanzena, Juantxerena, Ajularrena eta Alsua.
Labandibar	Estebezkorena, Juanikotena, Arostegia, Berrederena, Juanes Butunena, Basterretxea, Mitxelena, Negendorena, Tomasena, Alarikun, Miguel eta eraikitzen ari zen Arostirena.
Alkerdi	Miura, Zelaieta, Zelaietaborria, Martin, Zelaiena, Alzualdeaberea, Alzualdegaraia, Itxeoas, Martiekorena, Juanatorena, Itxetxuta, Itxalekua, Etxeberria.

Eskubide horiek 54 etxeek goza zitzairenen, hau da, baimena ematen zitzaion monastegiari eta Urdazubiko biztanleei kopuru horretaraino, gertatzen ari zen hedakuntza demografikoaren ispilu (Imízcoz Beunza, 1992, 209; 2009; Imízcoz Beunza eta Floristán Imízcoz, 1993, 179-180). 1584ko epaiak adierazten digu nolakoak ziren garai hartan Baztango herri lurretako basoak eta zuhaitziak: ondotik ebaki beharreko txaradiak ziren gehienbat, mugarraketa edo lepaketa debekatua egonik; dena den, etxegintza eta abeltzaintzaren beharrak asetzeko, Ingalaterran edo Frantzian oso ohikoak ziren *coppices with standard* edo *taillis-sous-futaies* sistema agintzen zen, hau da, haritz aproposak zeuden lekuetan 15 bat metroko distantzian (30 kodo) haritz tantai bat utzi behar zen; saroietan, aldiz, zuhaitzak lepatu egiten ziren (Galbete Guerendiáin, 1953, 398). 1636ra arte monastegiaren bi burdinolak lanean aritu ziren, 1638an frantses gudarosteak sartu –6.000 oinezko eta 500 zaldun, Amaiaurreko setioa altxatu arte– eta suntsitu arte –eta 5.000 bat abelburu bahitu ere–. Bertako maizterrak Baztango herri lurretan zuhaitzak moztu zitzaizkien –lizarrak ezik–, baina Baztango Harana eta monastegiaren saroietatik at ezin izango zuen ikatza egin, txaradiak erabiliz, alkatearen baimenik gabe, edota haritzak moztu, baizik eta iraileko San Migel eta martxo bitartean, hau da, neguan bakarrik (Zudaire Huarte, 1979, 126-138, 140-141 eta 143; Goñi Gaztambide, 2008, 712)⁸.

3. GATAZKAK HEDAKUNTZA GARAIAN

Arazoek XVII. mendean jarraitu zuten. Egia esan 1584an monastegiari eta bere Animelia izeneko eliarri egokitutako 27 saroiak mugarritu gabe zirauten, monastegiak foruan agertzen zen neurria eta Baztanek, bere aldetik, bere neurri propioak aplikatu nahi baitzituzten, bertako abereak –besteak beste Lapurditik ailegatutako behi atzerri-tarrak– herri lurretan sartuz eta kalteak eginez. Baztango saroiaren neurrien inguruan, badakigu 40 besakada edo estatuko erradioa ezarri zirela, hau da, 66 m, edo 27.355 m²ko azalera, 1664 eta 1737ko datuen arabera. Baina, nonbait, horrelako neurri zehatzak ezin ziren ezarri Urdazubiko monastegiaren saroietan, «... *por la descomodidad que tenían...*», baizik eta koadro, laukizuzen eta trapezioetan (Mendicoa Mariezcurrena, 2015, 34-63; Zudaire Huarte, 1979, 136).

Baztanek egindako harrapaketen ostean, 1600ko martxoaren 3an eta 1606 abenduaren 13an emandako bitartekari-epaien ondorioz, behiak monastegiaren saroietan jaso behar ziren, ez Baztango herri lurretan. Giro horretan, 1603an Baztango udal ordenantzak berriro ziren, 1582 baino lehenagokoak berretsiz, betetzen ez zirela seinale (Imízcoz Beunza eta Floristán Imízcoz, 1993, 209; 2009). Horrela saroietan lugorrik ez egitea eta zuhaitzak ez moztea eskatzen zen, edota Haranetik kanpo saltzeko zuhaitzak ondotik ebakitzea edo adarrak moztea debekatzen zen, egurrezko ontziak eta tresnak egiten zituzten artisauek ezik; kasu horretan zumarrak, sahatsak, haltzak edo fruiturik gabeko zuhaitzak moztu ahal zituzten, baina udalaren baimenarekin. Herri

8 *Executorial insertas sentencias, concordias, varios instrumentos y alegatos...*, 28-36. *Defensa preservativa del Valle de Bastan...*

lurretan bazka ugaria zegoenean lau gizon hautatu behar ziren txerri kopurua ezartzeko, eta, bestela, egon ezean, Alduidetara bidali. Gaztainondoak eta sagarrondoak landa zitezkeen herri lurretan, baina lursoroak kaltetu gabe eta itzalaren kalteak ekidin ahal izateko distantzia aproposa mantenduz. Zenbait artikulu berri ere ezarri ziren, adibidez: iraileko Amaren jaira arte iratzea moztea debekatzen zen; abeltzainei herri lurrei sua ematea debekatzen zitzaien; abelgorriak mendi gainetan egon behar ziren maiatzaren Gurutzetik (maiatzak 3) azaroaren San Martin egunera arte (azaroak 11); Haranetik kanpo erositako txerriak ezin ziren bazkatzera eraman herri lurretan, artaldean kopurua mugatu egiten zen –jada aipatu dugun bezala– eta kalteak egiten zituzten ahuntzak akabatuak izatera zigortzen zituzten; Baztango Haraneko 14 herriek basozain bat hautatu behar zuten lursoro eta sagastiak babesteko; eta partikularrek ezin zituzten beren behiak, idiak edo txerriak bere kabuz bazkatu, baizik eta udal abere-taldeetan eta txerri-taldeetan bazkatu behar zituzten (Zudaire Huarte, 1980, 22-24 eta 55-67; Imízcoz Beunza, 1992, 178-182)⁹.

1607ko abenduaren 7an eta 1608ko abenduaren 10ean Juan Iparragirre eta bere emaztea Mari Martin Matxinena, Urdazubiko Matxinena etxeko auzokoen aurkako eta Baztango Haranaren aldeko epaia eman zen, behin betiko adieraziz beraiek eta Urdazubiko biztanleak ez zirela Baztango auzokoak, baizik eta monastegikoak, eta, ondorioz, Baztango herri lurretan beren abereak bazkatu ahal zituztela, baina Urdazubiko monastegiko *bazterrekoak* bezala eta monastegiaren menpekoak izatetik eratorria, 40 txerri izateko eskubidearekin, bordak, txabolak, luberriak edota landaketak egiteko debekua-rekin. 1609ko abuztuaren 23an Elizondon Baztango Haranak eta monastegiak akordio batera ailegatu ziren San Migeletik Urteberrira pagatzen bazka enkantean jartzeko, ganadu guztientzat, txerriak ezik. Arizkun eta Urdizateko bazkaren irekierak ezin zuen Ortzaizekoekin zuten partzuergoa (Baztan eta Ortzaize 1547ko uztailaren 6an Izpegin sinatua) kaltetu, hauek eskubidea baitzuten beren txerriei eguzkitik eguzkira bazkatzeko (Zudaire Huarte, 1967, 64). 1621ko irailaren 19an gauza bera egin zuten Aritzakun eta Zugarregiko mendiekin. Halere, 1624-1628ko udal ordenantzek adierazten zuten moduan, basoaren egoera okerrera egiten ari zen, bertako auzokoei Baigorri, Nafarroa Beherea, Alduide edota Bertizeko jaurerrian haritzak erostera behartuz; horregatik Haraneko basoen babesa areagotu egin behar zela goraipatzen zen, herri lurren erabilerak bakarrik auzokoentzat mugatuz. Imízcoz Beunzak aipatzen duen bezala, prozesu hauek egoera berri baten ondorioa ziren: indibidualismoaren eta erabilpen pribatuaren areagotzea erabilpen kolektiboen kalterako, zuhaitz landaketa pribatuak, eta larre eta iralekuen garapena bultzatuz; baserrien sorrera eta hedakuntza habitat finkoa bezala; eta, azkenik, herri lurren erabilpenetatik zenbait biztanleen baztertzea (Imízcoz, Beunza, 1992; 2009; Imízcoz Beunza eta Floristán Imízcoz, 1993).

Beranduago, 1676ko irailaren 18an, 1679ko ekainaren 10ean eta irailaren 23an, bistan eta errebistan, 1600 eta 1606ko epaiak berretsiz, monastegiko *bazterrekoak* Baztango herri lurretan aske eta mugarik gabe bazka zezaketela adierazi zen, txerri eta behien kasuan ezik, elietan zaindu behar baitziren. Txerriak, bazka garaian, ezin ziren

9 AGN, Tribunales Reales, Procesos, 149188.

14 burutik pasa auzokideko, Baztani bahitutako ardiak eta arkumeak bueltatzera edo ordaintzera kondenatuz, eta behien kasuan, aurretik aipatutako 1600 martxoaren 3an eta 1606ko abenduaren 13an ezarritako epaiak errespetatuz, saroi batean egon behar ziren (Zudaire Huarte, 1980, 26).

1663 eta 1757 bitartean, Urdazubiko auzokoek askotan eskatu zuten Baztango herri lurretan eraikitze, ereiteko eta landatzeko baimena, baina ez zitzaien eman. Haiek ez bezala, Baztango auzokoek beti izan zuten eskubide osoa, baimenik gabe, bere lurretan baserriak eraikitze eta handitzeko, harik eta 1696ra arte, noiz Baztango Haranak auzoko berrien sarrera debekatu zuen. Kontuan eduki behar da, XVII. mendean Baztango populaketak gora egin zuela, auzoko nahiz biztanleen kasuan, azken hau oso nabarmena bada ere: 1646an 706 (692) auzoko eta 82 (100) biztanle bazeuden, 1678an 742 (748) auzoko eta 228 (222) biztanle (Arizcun Cela, 1988a, 258 or; Imízcoz Beunza eta Floristán Imízcoz, 1993, 210-212; Imízcoz Beunza, 2009, 349-351)¹⁰. Gainera, 1664an Haranaren Batzar Nagusia bildu zen 10.000 zilarrezko errealeko dohaintza erregeari eskaintzeko, baina horri aurre egiteko, errege pribilegioak eskatzen zituzten «... *para los arrendamientos de los comercios y posadas y para vender algunas tierras comunes y concejiles y hacerlas amojonadas y por lo mismo concederle al dicho valle una feria libre y franca según las demás del reino en el tiempo que él escogiere...*». Urte bereko abenduaren 27an herri lurren salmenta, irabelarrak salbuestuak geratu zirela, aurrera eramatea erabaki zen: guztira 3.106'5 gizalur saldu ziren, 25.498 errealean truke (Mendicoa Mariezcurrena, 2015, 78; Arizcun Cela, 1988b, 349).

Urdazubik 1662an lortu zuen alkate, zinegotzi eta diruzainak hautatzeko eskubidea eta 1664an monastegiaren auzokoak izatea, eta ez *baserritarrak* edo *bazterrekoak*. Urte horretan, hain zuzen ere, Baztango Haranak monastegiko burdinola berriko maizterrari, iparraldeko Hernando Olagarairi, burdinola lanean ez zegoenean zuhaitzak moztea eta 15 metrora haritz bat ez uztea leporatu zion; martxoaren 7an eta 22an emandako behin betiko epaietan debekatu egin zitzaion edozein ebaketa edo inausketa egitea Baztango herri lurretan. Olagaraik argitu zuenez, 1662an burdinolaren maiztertza sei urterako hartu zuen, bere abereak bazkatzeko eskubidearekin (100 ardi, 24 ahuntz, 24 idi edo behi, txerri eta mando), eta monastegiko abadeak baimena eman zion beharko zituen ikatzak aldeztu aurretik mozteko, martxo eta maiatza artean –hau da, epez kanpo, garai onena iraila martxo bitartean baitzen– Larreiaztiako basoan, burdinola abendutik aurrera lanean jarriko baitzen. Epaiak Baztango Haranaren aurka egin zuen eta auziaren kostuak ordaintzera behartu zuen. Urtebete beranduago, 1665an, hiri edo jurisdikzio pribilegioa, hau da, Urdazubiko alkateak eta zinegotziek, ordurarte monastegiko abadeak aplikatutako jurisdikzio zibila eta kriminala jaso zuten. Urtebete beranduago, 1666an, dena den, monastegi eta auzokoen arazoen aurrean, esparru borobila monastegiari zegokiola erabaki zen, 1584ko otsailaren bitarteko-epaian bezala, nahiz eta etxeak eta baserriak auzokoen jabegoa izan, inongo baimenik gabe berreraikitze eskubidearekin, amildu ezean behintzat, uztan

10 Kopuruak aldatu egiten dira egilearen arabera: lehen zenbakia Arizcun Celak ematen du eta bigarrena Imízcoz Beunzak.

jasotako garien 3/10 monastegiari emanez, eta artilea, urte batean monastegiarentzat eta bestean ardi jabeentzat¹¹.

Testuinguru honetan, 1696an Baztango udal ordenantzak berrituak izan ziren. Bertan irabelarren kudeaketa ezartzen zen: maiatzaren Gurutzetik azaroaren San Martin eguna arte, abelgorriak mendi goialdeetan egoten ziren bitartean, laborantza ganaduak irabelarretan (iratzez eta belarraz osaturiko eremuak) egoteko eskubidea zuten. Garai honetan basoarekiko ardura oso handia zen, baso-soiltzea eta, ondorioz, bazkaren gutxitzea burdinolen kontsumoari leporatuz. Hori zela eta auzoko bakoitzak izan zitzakeen txerrien kopurua 30 burura mugatu zen eta baso geruza berreskuratzearen 4 zuhaitz landatzera behartu ere, ebakuntza eta azala kentzearen debekuak berretsiz (Zudaire Huarte, 1980, 29; Imízcoz Beunza eta Floristán Imízcoz, 1993, 210-211).

Bitartean, Zugarramurdi ez zela haraneko auzokoa, baizik eta monastegiaren *bazterrekoak* edo *baserritarrak*, argudiatuz, 1630an Baztango Haranak Zugarramurdiren aurka hasitako auziari irtenbidea emateko, 1711ko martxoaren 30ean Baztan eta Zugarramurdi, monastegiko *bazterrekoak* eta *baserritarrak* izanik, hitzarmen bat sinatu zuten, azken honi eremu propio bat onartuz eta zuhaitz landaketak egiteko beste eremua ezarriz, gero apirilaren 6an ezarritako bitarteko-epaiak bertan behera utziko zuena. Lehen epaiak Zugarramurdiren alde egin bazuen ere, beste auzoko bezala, herri lurretan bere abereak egunez eta gaeuz gordetzeko txabolak, bordak, hesiak eta eskortak eraikitzeo eskubidea emanez –partzuergoen kasuan Baztanen alde eginez, Zugarramurdiri ordezkaritza propioa debekatuz–, bista (1683ko azaroaren 20an) eta errebitako (1686ko urriaren 26an) epaiak Zugarramurdiren aurka egin zuten, belarrak eta urak Haranaren herri lurretan bere ganaduekin ustiatzeko, eta egurra eta zura esku-ratzeko eskubidea zuela adieraziz, baina bere ganadurako eraikinak, luberriak edo landaketak egin gabe, 1443ko bitarteko epaia errespetatzeko aginduarekin, hau da, horrelakoak egokitutako eremu zehatzean egiteko aukerarekin:

empezando en el termino de Arriurdina, donde nace el rio, hasta la fuente llamada Chirripa, y de alli hasta los mojones que pusieron los juezes arbitros, y de alli hasta el mojon que esta en la endrecera de la iglesia de San Estevan de Alquerri, y de alli a luso, como ataja el rio, hasta el termino llamado Olasur, y de alli azia la parte de Zugarramurdi, en todo el termino de el dicho lugar de Zugarramurdi, fuera de las bustalizas, mas no de los dichos mojones adelante azia lo de Urdax.

Bukatzeko, Sararekin egin beharreko partzuergoak sinatzeko, Baztanek sinatu behar zituen, ez Zugarramurdik. 1693ko maiatzaren 15ean erabaki zuten Zugarramurdiri egokitzen zitzaion eremua mugarritzea:

Comenzando desde el sitio y parage llamado Arriurdina o Arrileuna, que esta a la cabecera del barrio de Alquerdi y cerca de donde nace la fuente o regata que baxa a Chirripa, en linea recta al puesto llamado Arrizbacoyza, poniendo mojones en este,

11 Altzibar-Jauregi-Mitxelena Etxearen Artxiboa, Mitxelena, 45, 524. *Memorial ajustado del pleito...* AGN, Tribunales Reales, Procesos, 044567, 044649 eta 090692.

y en el dicho sitio de Arriurdina o Arrileuna; y desde el dicho sitio de Arrizbacoyza hasta la casa de Sansinena de dicho lugar de Zugarramurdi; y desde dicha Casa de Sansinena, dando buelta acia abaxo al puesto y sitio llamado Lezeburua, donde tambien mandamos se ponga otro mojon; y desde el dicho puesto de Lezeburua, al parage y sitio donde solia ser la texeria vieja del dicho lugar de Zugarramurdi, donde tambien se ponga otro mojon; y desde dicho sitio a la texeria vieja, dando buelta al sitio llamado Sagardia-Errica, donde esta una pieza de la casa de Juriteguia, y en ellas se ponga otro mojon; y desde dicha pieza al sitio y puesto llamado Azqueta, donde se halla un mojon que divide el termino de Urdax y Zugarramurdi; y desde este dicho mojon hasta la casa de Iturria, del barrio de Alquerdi, junto a la hermita de San Estevan de dicho barrio; y desde este sitio a otro mojon que esta mas arriba de la casa de Chirripa del dicho lugar de Zugarramurdi; y desde el dicho mojon y puesto hasta el dicho parage o sitio de Arriurdina o Arrileuna¹².

Aipatu bezala, 1711ko apirilaren 6an bitarteko-epaiak martxoaren 30ko Baztanen eta Zugarramurdiren arteko hitzarmena bertan behera utzi zuen eta erabaki berriak ezarri zituen: Zugarramurdiko lurrak eta irabelarrak mugarriztatuz; Baztango behien igoera eta jaitsiera finkatuz; Zugarramurdiko bordetan berrogei urtez landaketak egiteko eremuak seinalatuz; bitartean Baztango herri lurretan bere beharrak asetzeko lekuak ezarri; Baztango herri lurretan egin beharreko landaketak ezarri; eta saroietan egindako landaketak eta lau borden jabegoa Zugarramurdiren jabegopean jarri, hiru saroi Baztangoentzat geratzen ziren bitartean. Ondorioz, Zugarramurdiren mugak horrela geratzen ziren:

Empezando desde Arriurdina o Arrileuna, que esta a la cabecera del barrio de Alquerdi, subiendo en derecha al parage llamado Arreguia, que esta a la vista del dicho lugar, y poniendo mojon en el dicho parage de Arreguia o señalando la peña que hay en el para que sirva de mojon, pase desde alli (como corren las vertientes de las aguas) al parage llamado Aizparaz, donde se ha de poner otro mojon o señalar por tal una peña que hay en dicho parage a la vista del dicho lugar; y desde dicha peña y mojon, corriendo por los mismos vertientes, siga al parage llamado Mendi-bil, donde se ponga otro mojon; y desde aqui, corriendo asi bien por los mismos vertientes siga al parage llamado Santrateguicoegua, donde se ponga otro mojon, de manera que el vertiente de azia dicho lugar de Zugaramurdi, que hay desde el dicho parage de Arreguia hasta el de Santrateguicoegua sea termino y jurisdiccion propio del dicho lugar; y desde el dicho parage de Santrateguicoegua, corriendo por el camino que se va a Sarasiga, al sitio donde solia ser la texeria vieja del dicho lugar, sirviendo de division y mojonera en este intermedio el dicho camino donde se ponga otro mojon, no hallandose anteriormente puesto; y desde el dicho puesto de la texeria vieja, siga al parage llamado Guerezteguicoegua, junto al sel de este nombre, donde esta puesto un mojon; y desde el dicho mojon de Guerezteguicoegua siga al parage llamado Musularretacolepoa, donde tambien hay otro mojon junto al camino de Sara, cogiendo dentro de esta demarcacion la borda de la Casa de Tellechegaraya del dicho lugar con sus heredades; y desde el dicho mojon de Musularre-

12 *Executorial insertas sentencias, concordias, varios instrumentos y alegatos...*, 86-93.

tacolepoa, corriendo por otros dos mojones que estan puestos, el uno junto a la Cruz de Izalona y el otro en Olasurcolarria, siga hasta el parage llamado Olasurcoataca, donde esta puesto otro mojon a la orilla de la regata que baxa de Alquerdi; y desde el dicho mojon de Olasurcoataca, subiendo por la dicha regata y sirviendo esta de division y mojonera siga donde nace dicha regata, que es en la fuente llamada Chirripa; y desde dicha fuente siga al parage dicho de Arriurdina o Arrileuna, en que empieza y remata esta demarcacion y señalamiento; de forma que todo lo comprendido dentro de esta delineacion sus mojones y lineas, segun va referido, resuelven, determinan y declaran los dichos señores arbitros que de aqui en adelante perpetuamente haya de ser y sea propio y privativo termino y jurisdiccion del dicho lugar de Zugarramurdi.

Era berean, esan bezala, Zugarramurdiko irabelarrak mugarritzen ziren, hau da, maiatzaren 3tik azaroaren 11ra arte erabilgarria egoteko iratzetz beteriko eremua, non Zugarramurdikoek ezin zuten udaberrian Baztangoen abereak harrapatu eta bahitu, Baztangoen behiak mendi gailurretara eta udako saroietara igo arte. Behiak bertatik jaisten zirenean bahitu zitzaketen, Zugarramurdiko zinegotzi baten presentziarekin eta saria ordainaraziz, urriaren 15ra arte, baina ez ondoren:

empezando desde el dicho parage de Arriurdina o Arrileuna hasta el parage llamado Arizbacoyza, y de alli corriendo por la casa de Sansinena del dicho lugar de Zugarramurdi hasta el parage llamado Lezeburua; y desde alli al dicho parage y sitio de la texeria vieja, como corre el camino; y desde dicha texeria vieja, hasta el parage llamado Cupela-Loycomunoa; y desde alli corriendo por la cima o vertientes hasta el parage llamado Arizcharra; y desde alli al parage llamado Olaberrico-Ondoa; y de alli como corre la regata al parage llamado Azqueta; y desde el parage de Azqueta, corriendo por la regata que baxa de la fuente de Chirripa, hasta el dicho parage de Arriurdina o Arrileuna.

Zugarramurdikoek berezkoa zuten eremuan zituzten bordak Baztanentzat geratzen ziren eta borda edo eskorta berriak egitea edo zegoeneko zituztenak zabaltzea debekatu egiten zitzaien, Baztangoei beren herri lurretan bezala, irabelarretan ezik, non mantendu egiten zitzaizkien eta baimena eman ere berriak egiteko edo zituztenak zabaltzeko. Zugarramurdiri zuhaitz landaketak egiteko eremua seinalatzen zitzaion:

desde el referido mojon de Arreguia hasta el mojon de Mendibil, como dicen los vertientes de las aguas; y desde alli todo el termino contencioso que cae azia el rio Hugarana u Ororvidea y mojon de Vizcayluzea haya de ser y sea de aqui adelante perpetuamente termino propio y privativo del dicho lugar de Zugarramurdi, solo para usar de el en hacer plantaciones y cortes de todo genero de arboles, quedando el derecho de gozamiento, asi en quanto al pasto como en quanto a hierbas y aguas, por comun para el dicho valle y universidad de Baztan y para los vecinos del dicho lugar de Zugarramurdi, en la misma forma que hasta aqui le han tenido y tienen, sin novedad ni alteracion alguna.

Eremu horretan Baztangoei zuhaitzen ebaketa debekatzen zitzaien eta Zugarramurdiko ei Baztango herri lurretan. Dena den, lehenengo 40 urteetan, landaketak hazi

arte, Baztango alkatearen baimena ematen zitzaien Zugarramurdikoei eraikuntzarako zura lortzeko Haranaren herri lurretan. Trukean Zugarramurdikoei behartzen zitzaien hamalau urteko epean hiru urteko 8.000 haritz edo gaztainondo entregatzera Baztango Haranak seinalatutako tokian, horretarako behar zen hazia Ugarana mendian eginez, lekua itxiz eta hesituz. Zugarramurdikoek Olasur eta Madariagako saroietatik at egindako landaketak beraientzat geratzen ziren. Gatazkako mendietan (Txoporro, Okelar eta Aranburun) Zugarramurdiko auzokoei zituzten 4 borda eta landaketak beren esku geratzen ziren, baina landatu beharreko 1.500 haritz (500 Olasurren hiru urteetan edo ostotetan) eta 3 saroi truke (Loiaga-Garaia, Irzalona eta Aintzizurieta). Bazka aurretik egin bezala egingo zen eta saroiak mugarritu egingo ziren. Zugarramurdikoek ezin zieten Baztangoei egindako kalteak ordaintzeko eskatu eta bitarteko-epaia eman aurretik alde guztien artean egindako akordioak bertan behera geratzen ziren.

1727an Bakeolako burdinola gelditua jarraitzen zuen, horregatik monastegiak konpondu eta berrabiarazteko proposamena egin zion Baztani, baina honek nahiago zuen lanean ez jartzea eta bitartean bere herri lurretan baso salmentak egin. Hain zuzen ere, urte horretan Baztanek 18.000 karga-egur saldu zizkion Agiregi mendian Amaiurreko auzokoa zen Tomas Bordari, 1.000 pisuren truke, baina urte bereko apirilaren 26an Bernart Aranburu, hogeitaz monastegiko burdinolarako lana egin zuena, atxilotu zuten bertan pagoak mozteagatik. Aranburuk argudiatzen zuenez Tomas Bordaren salmentaren inguruan auzia zegoen eta auto inibitzailea eman zen, Urdazubiko monastegiko eta bere burdinolaren faktorea zen Fray Pedro Lastirik agindu omen zizkion 150 karga-ikatz egiteko. Aranburu 48 erreale ordaintzera kondenatu zuten. Baztanek adierazten zuen berak bakarrik zuela bere herri lurretan saltzeko aukera eta ez monastegiak, auzoko hutsa baitzen, gainera, Frantziara edo atzerrira ateratzea debekatuta izanik. Bere aldetik monastegiak, noski, 1584 bitarteko epaiaren laugarren kapitulua argudiatzen zuen, bertan bidea ematen baitzitzaion bere burdinolak behar zituen ikatzak herri lurren zuhaitzetatik ateratzeko. 1725ean monastegiak eskatutako auto inibitzaile batek 1724an bere baimenarekin Frantzian saltzeko Orobidean eta Aritzakunen 100 haritz baino gehiago ebaki zituzten lau langile frantsesen lanak geldiaraztea lortu zuen, baina ez Orobideko eta Aritzakuneko pago ebaketak. Monastegiak protesta egin zuen eta 1726ko epaiak Frantziara ateratzeko pago eta haritz ebaketak debekatu zituen. Baztan konforme egon ez arren, bistako epaiak erabakia berretsi egin zuen. Gainera, Baztango Haranak, basoak birpopulatzeko, 6 metroko distantzian zuhaitz bat uzteko agindua ez errespetatzea leporatzen zion Aranbururi, baina berak kontrakoa zioen: bere ikazkinek errespetatzen zutela. Are gehiago, 1706an Kanboko «Ostiko» ezizeneko eta 1719an «Gaste» ezizeneko ikazkinak Frantziarako ikatza egiten eta 6 metroko distantzian zuhaitzik utzi gabe harrapatu zituztela argudiatzen zuen Baztanek. Monastegiak burdinola txiki bat edo gabiola eraikitzea proposatu zuen burdinola zaharrak urtean ekoiztutako 800 kintalak lantzeko, bakarrik 400-500 karga-ikatzeko kontsumoa izango zuelakoan, 6.000 karga-ikatz goratik kontsumituko lukeen burdinola handi bat ez bezala, argudiatuz¹³.

13 *Memorial ajustado del pleito...* AGN, Tribunales Reales, Procesos, 093515.

Beste behin, 1733an Baztango Haranak bere udal ordenantzak berritu zituen. Bere hamahiru kapituluaren gehiengoak baso kudeaketara zeuden bideratuak: partikularrek landaketak egiteko eskubidea mugatu zen eta Haranarenak zabaldu, auzoko bakoitzari herri lurretan 1.300 zuhaitz landatzeko eskubidea ezarri; gainera zokorra (haritz eta pagoen kimuak) udaberrian moztea eta *karloa* edo pagatxak jatea abuztutik urriaren 18ra arte, San Lukas egunera arte, debekatu zen (Zudaire Huarte, 1980, 33; Imízcoz Beunza, 1992, 180-182; Imízcoz Beunza eta Floristán Imízcoz, 1993, 206).

4. HERRI LURREN ETA ERABILPENEN ZATIKETA ETA BASO GERUZA BERRESKURATZEKO SAIAKERAK

Aurretik aipatu den indibidualizazio eta erabilpen partikularren areagotze prozesuen ondorioz (Imízcoz Beunza, 1992, 206-207, 213; Imízcoz Beunza eta Floristán Imízcoz, 1993), 1740ko abenduaren 10an, basoen inguruko hainbeste gatazkei irtenbide bat aurkitu nahian, eta ikusita elkarbizitza ordurarteko bidetik ezinezkoa zela, herri lurrak zatitu egin ziren, Baztango Haraneko 14 herriei, monastegiari, Zugarramurdi eta Urdazubiri eremu propio egokitu eta Baztango herri lurretan egokitu zitzaizen baso ustiaketa eta zuhaitz landaketak egiteko eremuak mugatu zitzaizkien. Ordurako, 1727ko apeo edo zenbaketa orokorrean Urdazubiko etxeak 100 ziren (errota, etxe itxiak eta Martin Iriarteren etxea kontuan harturik), hau da, 103 su, eta Zugarramurdikoak 83 su edo 55 auzoko eta 26 biztanle. Monastegiari eta bere biztanleei bere inguruko basoak soilduak zituztela leporatzen zitzaion (2 legoa koadro, hau da, 11 km²), eta Baztango herri lurrak soiltzen hasiak zirela, batez ere monastegiaren burdinolarentzat ekoiztutako ikatza eta azken 50 urteetan Frantzia aldera ateratako zura, oholak, kupel-oholak, ikatza eta egurratik. Urdazubi eta Zugarramurdi Frantziatik oso gertu zeudenez, Pirinioetako iparraldean, Ezpeleta, Ainhoa, Senpere, Itsasu edo Sararen aldamenean, eta Baztan Harango 14 herri hegoaldean ia 3 kilometroetara edo, oso zaila egiten zitzaion alkateari ateratzeak ekiditea. Are gehiago, Baztango behatzailea ezartzea alperrik zen, iruzurrek Urdazubi edo Zugarramurdiko etxeren batean uzten baitzuten egurra edo zura, beranduago hartzeko, bidez edo Bidasoa ibaia erabiliz, non ohikoa zen aspal-ditik zura, oholak, arraunak edo oholtxoak eramatea Errege Arsenaletara bideratzeko (Aragón Ruano, 2019, 443-453). Monastegiak bere aldetik Baztango Haranari 800 auzokideen artean 15-20 txabola berri egin izana leporatzen zion, berari ere 6 txabola berri eraiki izana leporatzen zitzaion bitartean. Monastegiko burdinolari azken 10 urteetan 60.000 karga-ikatzeko eta 1584tik milioi karga-ikatzeko kontsumoa leporatzen zitzaion. Baztango auzoko bakoitzari –monastegia barne–, arestian ikusi dugun moduan, 1733ko Baztango ordenantzetan berretsi ziren 1.300 haritz edo gaztainondo landatzeko aukera eman bazitzaion ere, Urdazubik, Zugarramurdik eta monastegiak ez zuten bete. Horrela jarraituz gero, muga despopulatzeko arriskua omen zegoen, Alduidetan gertatu zen moduan. Monastegiak, bere aldetik, egur salmentak Baztango Haranari leporatzen zizkion, eta honek 31.287 erreal eman zituzten 1701-1740 bitartean egindako salmentak onartu zituen, baina argudiatuz bere herri lurretatik atera zituela, ez Urdazubi edo Zugarramurdiren eremuetatik, non bakarrik 1.525 erreal eman zituzten 1701ko irailaren 10ean eta 1716ko martxoaren 4an *galarratik*, hau da,

lurrera eroritako haritz eta pagoetatik, egindako salmentak. Monastegiak egurraren bila kanpora atera behar zela argudiatzen zuen. Adibidez, 1743an Ainhoari txara bat erosi omen zion 20.000 karga-ikatzarekin, karga bakoitzetik 6 tarja ordainduz; bere esanetan, urteroko gauza zen, batzuetan Senperen bestetan Saran, otea eta suegurra erosiz, bere burdinolarako mea erretzeko. Monastegiak mozketak egiterakoan 1584ko araudia ez zuela errespetatzen eta 15 metrero haritza ez zuela uzten salatzen zuen, hau da, birbasotzeko, ebaki beharrean, zortzi moztuetatik 1 tente utzi, ipinabarro bihurtuz, hau da, inaustean bi adar nagusi utziaz (*horca y pendón*) salatzen zuen Baztango Haranak, nahiz eta orohar dokumentuetan «cortar por rama» edo «cortar por pie» ohikoena izan.

Epaiak ohol, suegur edo ikatzaren Frantziarantz ateratzea debekatzen zuen eta landaketak egiteko Zugarramurdiri zein Urdazubiri seinalatutako eremua ematen zien 45 urteko epearekin, bakarrik bazka, belar eta ur eskubideekin, behin bukatuta Baztango auzokide guztietara pasako zelarik, Urdazubikoei Zugarramurdiko eremuan sartzeko debekuarekin eta alderantziz, bitartean biei Baztango herri lurretako basoetan behar zituzten zura eta egurrak eskuratzeko eskubidearekin. Baimena ematen zien Urdazubikoei Baztango herri lurretan kokaturiko saroietan zeuden edo landatuko zituzten zuhaitzetatik behar zuten egurra eskuratzeko, zuhaitzen seirenera mugatuta, baina bakarrik adarrak moztuta, hau da, lepatuz, zuhaitza ebaki gabe, abereentzako itzala bermatzearren. Saroi bakoitzean 826 zuhaitz landa zitezkeela kalkulatu zen eta Monastegiari 206.304 zuhaitz aldaxka egokitu zitzaizkion 45 urteen epearekin. Gainera, hemendik aurrera eraikuntzarako zuhaitz bat ebakitzeko Baztango alkatearen baimena beharko zen, zeinek ezingo zien Urdazubiko eta Zugarramurdiko auzokoei ukatu, baimenik gabeko ebakitzaleei zigorra ezarriko zitzaien, baita Frantziara ikatza edo egurrekin esportatzeko helburua zutenei ere, eta, azkenik, olagizonek beren sute-gientzat *galarra* edo egur lehorra erabili zezaketen, betiere iruzurrik gabe. Monastegiari ere zuhaitz eremua seinalatzen zitzaion, bere burdinola edo fraileen beharrak asetzeko, bera bakarrik ustia zezakeena, Urdazubi, Zugarramurdi edota Baztango 14 herrietako biztanle eta auzokoei sartzea edo ustiatzea debekatuz. Isunak ezartzen ziren: pago, haritz, intxaurren, gaztainondo edo edozein zuhaitz aleengatik dukat bat egunez eta bi gauez, dukat erdia adarra moztuz gero. Trukean Baztango abeltzainek, Olasur saroian sua edo bere txabolen eraikinak konpontzeko, adarrak mozteko eskubidea zuten. Baztango auzoko bakoitzak urtean 2 zuhaitz landatu behar zituen moztutako bakoitzaren truke eta herri lurretan 1.300 zuhaitz landatzeko aukera zuen. Honen harira, Baztango Haranak argudiatzen zuenez 1726 eta 1743 bitartean diru asko inbertitu zen mintegietan eta landaketetan. Dena den, Monastegiak ere bere eremuan eta saroietan landaketa asko egin zituela erantzuten zuen, nahiz eta bere jabegoko eremuan izan eta ez herri lurretan¹⁴.

Hain zuzen ere beheko taulan ikus daitekeen moduan, XVIII. mendearen bukaeran landaketa asko egin ziren monastegiaren saroietan eta zuhaitzik gabe zeuden saroietan landaketak egitea agintzen zen (1753ko urriaren 24an neurtua izan ziren).

14 *Executorial insertas sentencias, concordias, varios instrumentos y alegatos...*, 7-12 eta 58-70.

Taula 3. Urdazubiko monastegiaren sarobeetan egindako landaketak (1724-1792)

Saroia	Neurria ¹⁵ (brazadak=estados)	Landaketak	Urteak
Zuzaz		1.398 haritz	1747
Natsarrabeltz edo Naisarabe edo Nasarabea	120x58 100x54	Gabe (Mugatik gertuegi)	
Iguzkiegia	120x58 120x52	Gabe (Bidarraiko mugan)	
Labukodoi	50x80 (saroi erdia)	Gabe (Itsasuko mugan)	
Eskelzu edo Kiskaileku	50x50 (saroi erdia)	Gabe (Itsasuko mugan)	
Urkiola edo Zumunzubi	110x67	1977	1745-1752
Fagoteaga	124x60	35 pago	1791
Fagozabalaga edo Fagozabal	120x80 150x140	56 pago	1790-1791
Zugola edo Zuhiola	130x140	900 pago	1754-1790
Orinmarruma edo Orinmarrueta edo Oreinmarruete	100x103 100x110	Gabe (pagadia)	
Aranzeztegi edo Ansastegi	104x140	Gabe	
Gurdia	126x90	50 haritz	1747
Lizarzu	256x210	170 pago	1740-1792
Lizarlakoeta	110x150 120x150	(pagadia eta hariztia)	
Gorostilakoeta	90x82	(pagadia)	
Urelar edo Orelar edo Orelarre	96x108 108x116	232 pago (pagadia), haritzak eta gaztainondoak gaizki	1782-1791
Bearrestegi goikoa	103x110	300 haritz (hariztia)	1786
Bearrestegi bekoa	100x100	200 pago eta 60 haritz	1782-1788
Osias edo Otsitsat edo Otsiast	212x80 208x80	541 haritz eta pago	1746-1787
Amutsabuztan	140x50	260 haritz	1745-1786
Amutsa	96x?	140 zuhaitz (gaztainondo eta hariztia)	1786

15 Letra arruntaz zuhaitz zenbaketan gutxi beherako neurketa. **Beltzez** 1753an egindako neurketa.

Saroia	Neurria (brazadak=estados)	Landaketak	Urteak
Aienzurrai edo Ainsurnai edo Ainzurai	100x100 100x136	400 haritz	1724-1725
Arsua	140x140	400 gaztainondo eta haritzak	1781-1787
Berzuaran	140x147	150 (hariztia)	1791
Kortesola	100x100		
Sabukodoi	50x86	(Itsasuko muga)	
Arza			
Kaminondo			

Dena den, monastegiak ez zuen epaia onartu eta errekurtsua bideratu zuen, baina, azkenean, 1746ko otsailaren 12an berretsia izan zen Baztango Haraneko, monastegiko, Urdazubiko eta Zugarramurdiko auzokoei, Kontseiluaren baimenik gabe, edozein zuhaitz, zura, egur eta ikatzen salmenta debekatuz, eta eraikinentzako zura eta egurraren kasuan, zuhaitzak ondotik ebakitzeko alkatearen baimena ezarritik, aurretik beharra ziurtatuz eta moztutako zuhaitzak leku berdinean beste zuhaitzekin ordezkaturik. 1747an Isidro Gil de Jazek monastegiak edota Urdazubiko auzokoei Baztango herri lurretan bere beharretarako zituzten eremuak seinalatu zituen. Urte hartako apirilaren 16an Urdazubiko monastegiak Bakeola berriro martxan jartzea erabaki zuen. Baina horren aurrean, Baztango Haranak Bakeolako burdinola berriro martxan ez jartzeagatik esparru borobilean zituen 8 saroia (Izaburua, Aruztruaitzua, Axular, Argindurieta, Arizkain, Organbidea, Suzaz eta Kaminondoa) eta bertan bere ganaduekin, baina ez kanpotarrekin, egunez eta gauez bazkatzea eskaini zion monastegiari. 1746ko urriaren 14an Baztanek Zugarramurdin zituen 7 saroia mugarritu ziren: Olaberriaga (80x125), Gorostegia (66 2/3x60), Gerestegia (66 2/3x60), Loiaga (100x100), Urbia (100x100), Anzizurieta (125x80) eta Urrizondoki (125x80). Egun berean Zugarramurdiren landaketa eremuan Baztanek zituen 10 saroiak mugarritu ziren: Aiero (125x80), Ibarloaga (110x90), Azkanobieta (125x80), Arzesi (125x80), Loiaberea (125x80), Sorandia (100x100), Etxardegaraikoa (125x80), Oreñate, 66 2/3 x 60, Erebe (66 2/3x60). 1746ko azaroaren 11ean aipatutako Isidoro Gil de Jazek Baztanek monastegiaren landaketa eremuan zituen saroiak mugarritu zituen, ahal zen kasuetan borobilak eta ezin zen kasuetan –orografia zela eta– eliptikoak, gehienak 9.600 eta 10.000 estada karratu bitartean: Azkar (125x80), Eguzkiegikourruztia (100x100), Eguzkiegia (125x80), Lizardia (125x80), Aritzabal (160 2/3 x 60), Legarsaroi (125x80) eta Urkizelai (160x62’5). Egun bat beranduago, 1746ko azaroaren 12an, Baztanek Urdazubiko landatzeko eremuan zituen saroiak mugarritu zituen, 9.940 eta 11.340 estada karratu bitartean: Arizkantxar (100x100), Txoporro (162x70), Okelarrea (162x70) eta Bagazelai (140x71). Zerrendatutako saroia guztiek 5 mugarri zituzten, bat erdian eta 4 izkinetan. Urte horretan ere, pertsonaia berak eta perito lur-neurtzaileek Bakeolako burdinolak berreraikitze eta martxan jartzeko behar zituen zuhaitzak kalkulatu zituzten: hamabi urteetan eraikina mantentzeko, 7.104 zuhaitz behar zituen (592 zuhaitz urteko). Bere aldetik, burdinola

zaharrak urtean 9.000 karga-ikatz behar zituen, beraz, kontuan izanik karga-ikatz bakoitzak bi zuhaitz behar zituela, urtero 18.000 zuhaitz tantaiei beharra zuen, edo, zuhaitz motzak erabiliz gero, kontuan izanik 9 urtean behin inausten zirela, burdinola zaharrak 162.000 zuhaitz beharko zituen. Gainera, mea egosteko 100 karga-ikatz, hau da, 1.800 zuhaitz beharko zituen. Azkenik, administrazio etxeari, auzoko izategatik, 900 zuhaitz egokitzen zitzaizkion, bi errota eta labeari beste 900 zuhaitz, eta monastegiari berari 800 karga-ikatz, hau da, 14.400 zuhaitz. Beraz, monastegiko erai-kuntza guztien urteroko konponketentzat 7.104 zuhaitz aurre ikusten zituen Fernando Diaz Jauregi, maisu arkitektoak. Ondorioz, guztira, 1746an Urdazubiko monastegiak urtean 187.104 zuhaitz behar zituela kalkulatzek zen. Hori dela eta, landaketak egiteko eremua seinatu zitzaion (Zudaire Huarte, 1979, 148-152)¹⁶:

'empezando desde el sel llamado Amusa, que esta al pie de la regata llamada Ayzaarreguicoerreca, que divide el termino del valle de Baztan y el lugar de Añoa del reyno de Francia, siguiendo esta rio arriba hasta llegar al mojon de Gorospil, que divide los reynos de Francia y España, y desde dicho mojon corriendo por la colina, pasando por los parages llamados Zuazacun, Lizarruguibilicolepoa, monte o alto de Lizarzo; otro llamado Mairuilarretacogaña, pasando por la cima llamada Gurdiacogaña a la peña de la altura llamada Ansosteguicoarria y de alli a la altura llamada Artilleriacomunoa, y de alli al parage llamado Urriztimeacolepoa, donde se divide el termino del valle de Baztan y villa de Maya, donde se ha de poner un mojon pegante al camino que va de Maya al barrio de la Texeria de Urdax; y cortando desde el dicho mojon en línea recta a la peña llamada Adoragunecoarria, que se halla en el Camino Real que pasa por el sel de Otsondo al lugar de Urdax, quedando este fuera donde también se ha de poner otro mojon, y siguiendo el mismo Camino Real hasta el parage llamado Etordicoegui, donde tambien se ha de poner otro mojon, y haciendo buelta sobre mano izquierda acia la parte de poniente, cortando esta moma en linea recta desde dicho mojon hasta un roble que hay, donde tambien se ha de poner otro mojon; y siguiendo por la parte baxa de Ausondocogaña hasta llegar a la borda del palacio de Ascoa del lugar de Eluetea, en este intermedio y hasta dicha borda se han de poner seis mojones, dexando fuera dicha borda; y poniendo el sexto mojon en un altico que esta en par de una haya que hay en aquella falda, y desde este ultimo mojon baxando a la regata llamada Sayasun, juntandose con otra que baxa de Otsondo, y ambas juntas tienen su corriente acia el rio de Hugarana, y antes de llegar a dicho rio de Ugarana en par de un roble que esta a la orilla de dicha regata de Sayasun, donde se ha de poner otro mojon y subiendo desde dicho mojon en linea recta hacia la loma del monte de Sayasun, hasta llegar a un llano que hay en dicho parage se han de poner tres mojones, incluso el que se ha de poner en el llano de la loma, y desde este baxando por la otra falda de dicho monte de Sayasun hasta la regata de Arquichurri en linea recta se han de poner tres mojones, los dos en la misma falda y el tercero en la orilla de dicha regata de Arquichurri, y continuando esta rio abaxo hasta entrar

16 *Defensa preservativa del Valle de Bastan...*, 8r-10v eta 16v. *Por el Valle y Universidad de Baztan...*, 5-8, 12, 16-23 eta 26. *Executorial insertas sentencias, concordias, varios instrumentos y alegatos...*, 219-222, 246-247 eta 282-283. AGN, Tribunales Reales, Procesos, 049498.

en el río de Hugarana, y siguiendo este río abaxo, pasando por el parage donde estuvo la herrería de Baqueola y continuando dicho río hasta detrás del monasterio, y siguiendo desde este parage los mojones del redondo hasta entrar en la regata de Barreta, y siguiendo esta hasta el sel llamado Amusa, que esta al pie de la regata llamada Aizaguerricoerreca, que es donde empieza y acaba esta demarcación y señalamiento; y todo esto corresponde a la mano derecha del río Hugarana u Orovidea, yendo de España a Francia, y tomando por la mano izquierda pasando dicho río, se debe seguir el amojonamiento empezando desde el mojon del termino redondo del monasterio, que se halla a la caída y parte inferior de la peña de Arreguia, que mira acia el lugar de Urdax y termino redondo, y desde allí a la peña que llaman Azcar, y desde esta a otro mojon del redondo, que esta a la parte superior del camino de Baqueola, todos los vertientes que hacen acia el río que llaman Hugarana; y siguiendo este río arriba hasta encontrar con el mojon que divide el termino del plantio de Zugarramurdi, que se halla a la orilla de dicho río de Hugarana, con dos letras B y Z y de este mojon, siguiendo por la loma arriba hasta el alto de Mocorro, y de este al cerro que llaman Aycrucoarria, y siguiendo la misma linea en recto hasta encontrar con otro mojon que esta en par de dicha peña de Arreguia, que tambien divide el termino del plantio de Zugarramurdi con las mismas letras B y Z y de este siguiendo a dicha peña de Arreguia y baxando por la falda de ella a encontrar el primer mojon donde empieza esta demarcacion y señalamiento. Y en esta linea de circunvalacion, despues de descontarse del recinto que comprehende los terrenos adjudicados al lugar de Urdax para su plantio todas las bordas que incluye con sus heredades los seles del valle y la mitad de las alturas o cerros que quedan exceptuados y son los siguientes: empezando desde el mojon de Gorospil hasta el parage llamado Uritimaazecolepoa, en toda esta colina esta reservado sesenta estados desde lo alto por las vertientes abaxo acia la parte del plantio, la altura llamada Balsacoegua se reserva la mitad; otra llamada Amusacobizcarra se reserva la mitad; otra llamada Bordaerrecoarria o Oserdicoarria se reserva la mitad; otra llamada Eguiederrecoegua hasta la borda de Iribarren se reserva la mitad, en el parage acia la regata de Zuzaz, que es para el monasterio, se reserva la mitad de la altura, las que quedan comunes y de pleno goce para el valle, sus vecinos y congozantes.

Eremu honetan, zuhaitz batetik bestera 6 metroko distantzia utzita, monastegiak landa zitzakeen 206.304 zuhaitz. Kontuan izanik monastegiaren, bere erroten, erai-kinen eta burdinola zaharraren beharrak asetzeko 186.104 zuhaitz behar zituela, monastegiak 19.200 zuhaitz soberan edo gehiago edukiko lituzke; dena den, kopurua 20.000 zuhaitzetan borobiltzeko, monastegiari Saiasun mendian zeuden 800 zuhaitz gehitu zitzaizkion, baina 45 urtez Amesteko txaradiak ez mozteko baldintzarekin.

Azkenik, 1746ko azaroaren 16an Baztango herri lurretan 45 urtez Zugarramurdi eta Urdazubiko biztanleei emandako egurra eskuratzeko eremuak zaintzeko, alde guztiak akordio batera ailegatu ziren eta neurri batzuk hartu zituzten: denen artean ordain-dutako zaintzale bat jarriko zuten aipatutako eremuetan; Urdazubi edo Zugarramurdi-ko biztanleek ezin izango zuten zuhaitzak ondotik moztu, ez bazen eraikuntzarako, betiere alkatearen baimenarekin eta perito baten ziurtagiriarekin; iruzurrei zigorra ezarri zitzaien, nahiz eta mozketak egiten ez ikusi; baldintza berdinak aplikatzen zitzaie-

zkien Frantziara ateratzeko mozten zutenentzat, baina sutegi gizonei *galarra* hartzen debekatu gabe¹⁷.

Arazoak berriro 1784 eta 1787 bitartean sortu ziren, Monastegikoen gehiegikeriengatik. 1774ko maiatzaren 14an Urdazubik hiribildu gutuna edo titulua jaso zuen. Ordurarte, 1665tik, noiz jurisdikzio zibila eta kriminala eskuratu zuen, urtero Nafarroako erregeordeari eta kapitain nagusiari hiru auzokoen izena proposatzen zitzaizkion, haietako bat alkate moduan hautatua izateko. Urte hartan, 1774an, Urdazubiko hiribildua kexu azaldu zen monastegiaren aurka Ogasun Kontseiluaren aurrean eta 1775ko apirilaren 25an eske bat igorri zion fiskalari. Bertan monastegiak aspalditik bere burdinolaren ikatz beharrak asetzeko, iralekuetan landaketak egiten zituela salatu zuen –horretarako Baztango herri lurretan eremua bazuten ere–, horrela auzokoen ongarri beharrak kaltetuz, edota, baimenik gabe, etxe edo luberri egiten debekatzen ziela, eta lanean zituzten lurrengatik gehiegizko eskubideak eskatu ere. Ohikoak ziren ekoiztutako gariagatik 3/10 eta beren ardien artilea, urte batean monastegiarentzat, hurrengoan auzokoentzat, gehi hamarrena eta hasikinak (garia, artoa, artatxikia, baba, lihoa eta sagar ekoizpenaren zortzietatik bat, baita artilearen kasuan, behi kume bakoitzetik kuartilo bat, eta 8 txerrikumeetatik bat) eskatzea, baina auzokoen esanetan, gariaren kasuan %17’5 gehiago eta artilean %50 gehiago ari ziren ordaintzen, kalte handiak eraginez, Zugarramurdin ez zirela ordaintzen, edota gari-hazia ereitearen, alea garbitzearen edo garraiatzearen kostuak eta uzten arriskuak kontuan izanik.

Burujabetza eskuratu zuenetik, Urdazubik inguruko herriein zituen partzuergoak ezartzeko aukera izan zuen, nahiz eta Haranari zegokionean, Baztanekin batera agertzen zen.

Taula 4. Baztanek inguruko herriein sinatutako hitzarmenak

Data	Herriak	Iraupena	Arrazoa
1603/04/14	Baztan – Etxalar	Iraunkorra	Partzuergoa
1603/10/08	Baztan – Ainhoa/Ezpeleta/Itsasu/Larrasoro, Zudaire	16 urte	Partzuergoa
1622/05/24	Baztan – Ortzaize	Iraunkorra	Partzuergoa
1632/02/16	Baztan – Ainhoa/Ezpeleta/Itsasu/Larrasoro, Zudaire	16 urte	Partzuergoa
1643/12/27	Baztan – Orreaga		Mugak
1653/06/11	Baztan – Ortzaize		Mugak
1654	Baztan – Amaiur		Partzuergoa
1672/10/18	Baztan – Ortzaize		Mugak
1676/1683/1686/1693	Baztan – Sara		

17 *Executorial insertas sentencias, concordias, varios instrumentos y alegatos...*, 270-277 eta 285-286.

Data	Herriak	Iraupena	Arrazoia
1677/04/20	Baztan – Lantz		Partzuergoa
1700	Baztan – Sara		Partzuergoa
1711	Baztan – Itsasu		Partzuergoa
1723/09/03	Baztan – Baigorri	8 urte	Partzuergoa
1724/05/10	Baztan – Etxalar		Partzuergoa
1728	Baztan – Sara		Partzuergoa
1736/06/11	Baztan – Sara	9 urte	Partzuergoa
1740/09/28	Baztan – Sara		
1748/06/17	Baztan – Bidarra		(Belar alokairua)
1748/09/05	Baztan – Sara	10 urte	Partzuergoa
1750/10/22	Baztan – Baigorri	8 urte	Partzuergoa
1753/01/31	Baztan – Sara		Mugak
1758	Baztan – Sara	Bertan behera	Partzuergoa
1758/09/26	Baztan – Senpere		Mugak
1764	Baztan – Baigorri		Partzuergoa
1767/01/27	Baztan – Sara		Mugak
1767/05/18	Baztan – Senpere		Mugak
1773/08/18	Baztan eta Urdazubiko monastegia – Ainhoa/Ezpeleta/Itsasu/Larrasoro, Zudaire	12 urte 9 urte Ainhoaren kasuan	Abere harrapaketak
1800/10/09	Baztan/Urdazubiko monastegia/Urdazubi – Sara	10 urte	Partzuergoa
1800/09/29	Baztan – Sara	10 urte	Partzuergoa
1820/06/26	Baztan – Itsasu eta Ainhoa	10 urte	Partzuergoa
1830/05/18	Baztan – Eugi	3 urte	Partzuergoa
1843/09/07	Baztan – Bidarra		Mugak
1847/10/14	Baztan/Joaquin Fagoaga/Urdazubi – Ainhoa/Itsasu	10 urte	Partzuergoa
1860/10/16	Baztan/Francisco Etxaide/Urdazubi – Ainhoa/Itsasu	5 urte	Partzuergoa

Fuente: Zudaire Huarte, 1967, 84-85.

Zugarramurdik hiru akordio sinatu zituen Etxalarrekin belar ustiaketari buruz, 1716ko otsailaren 16 eta 19an eta martxoaren 20an. Bere aldetik Urdazubik Senpere eta Ainhoarekin zuen partzuergoa 1954ko maiatzaren 5ean berretsi zuen (Zudaire Huarte, 1967, 86-88 eta 217-218).

Azkenean, 1784ko martxoaren 17an eta 1785ko martxoaren 16an emandako bista eta errebista epaiek –1786ko ekainaren 19ko Errege Exekutoriarekin batera– Urdazubiko auzokoak eta lurra aske zirela eta haien jabegokoa mugarik gabeko zirela, baina

hamarrenak eta hasikinak ordaintzen jarraitu behar zutela eta azken hamabost urteetan enfiteusia kitatzeko 74.290 belloizko errealeko zentsu berrerosigarri bat ezarri behar zutela, %3a ordainduz kitatu arte, Baztango herri lurretan egurra mozteko, iratzea eta otea aprobetxatzeko eskubidearekin eta bazka, belarrak eta urak eguzkitik eguzkira ustiatzeko aukerarekin, gauez monastegiak bertan zituen saroieta bueltatzeko beharrarekin agintzen zuten. Auzoko bakoitzak nahi adina gaztainondo, sagasti edo intxaurrondo landa zezakeen, 120 haritz tantai, suegur edo zura lortzeko. Auzokoek 4 saroi berri eraiki zitzaizketen seinalatutako eremuan. Eskaerari emandako erantzunaren data arte landatutako zuhaitzak monastegiak eta auzokoek ustiatzeko aukera izango zuten, baina handik aurrera landatutakoak auzokoen artean banatu behar ziren, monastegia barne, beste auzoko bezala. Urdazubiko udalak landaketak egiteko eremuak banatu behar zituen, ote eta iratze erabilpenak eragotzi gabe. Ondorioz, Urdazubiko hiribilduak lurra jaso eta mugarritu zuen, Baztango eta inguruko herriei batera, eta landatutako zuhaitzak banatu zituen, gutxi gora behera 3.000 zuhaitz (51 zuhaitz auzoko bakoitzeko), azkenean Urdazubiko auzokoek monastegiari utzi zizkietenak, 700 zuhaitz zaharren truke.

Eskaerari emandako erantzuna jaso baino lehen, landatutako zuhaitzak ezin izango ziren birlandatu, lurra libre geratzen baitzen auzokoen artean sailetan banatzeko –monastegia barne–. Esparru borobilaren behaketa eta neurketa eginez, honek 8.361 erregu-lur (erregu-lur bakoitzak 900 m² ditu, beraz, 7.524 hektarea) zituen. Monastegiak Ripera, Koiar, Landibar, Axularren eta monastegiaren inguruan 80 erregu-lur galsoro, 148 erregu-lur sagasti, 63 erregu-lur orokorra eta 14 erregu-lur mortu zituen. Bere aldetik, auzokoek Ripera, Koiar, Matabio, Teilerian, Landibar, Leorlas, Alkerdin eta Berosigin 1.492 erregu-lur galsoro, 368 erregu-lur orokorra, 520 erregu-lur sagasti eta 121 erregu-lur mortu zituen, itxiak eta ganaduaren igarotzea eragotziz. Monastegiak 14.004 zuhaitz, 614 erregu-lur neurtuz (4.721 laborantza lurretan, 9.283 irasailetan eta 940 Izaburua eta Anzurnaiko saroieta) zituen eta auzokoek 10.046 zuhaitz, 565 erregu-lur neurtuz (8.128 iralekuan eta 1.918 lursoroetan). Hortaz gainera, monastegiaren zuhaitz gabeko iralekuek 11 erregu-lur neurtzen zituzten eta auzokoenak 452, eta harkaitz, ote eta sastrakadi eremuek 3.911 erregu-lur –monastegiaren 7 saroiak betetzen zuten lekua kenduta–, non auzokoek beren abereak bazkatzeko eta beren lurak ongarritzeko iratzeak mozteko eskubidea zuten, baina ezin zituzten eraikinak, luberriak edo landaketak egin monastegiaren baimenik gabe, 1666ko epaiak ezarri bezala¹⁸.

1785ko abuztuaren 3an bildu ziren Urdazubiko hiribildua eta Baztango Haranaren ordezkaria, inguruko herriei (Ainhua, Senpere, Zugarramurdi), beren lurak mugarritzeko, zeuden mugarrak ikuskatu eta falta zirenak ezartzeko, Sardina zubitik bertaraino, 21 mugarri aurkituz edo markatuz (San Blas, Buztingorrieta, Aitatzore-nako borda, Mozarena, Lapizubia, Masakoleta, Arrutegiko Mugarrialdea, Arizgaintzar, Arizgain, Sorozar, Izamendia, Etxetoa, Etxearte, Iturria, Txirripa, Berosegi edo Argindurieta, Azkar edo Gaztelaun, Urrasun Dotareako borda eta Osinbiribila).

18 Altzibar-Jauregi-Mitxelena Etxearen Artxiboa, Mitxelena, 45, 524.

Beranduago, uztailaren 23an bi aldeek hitzarmen bat sinatu zuten zentsuaren, hamarrenaren eta hasikinen ezarketa finkatzeko (oraingoan gari eta artilearen ekoizpenetik –urtean 1.400 erregu eta 217 arroba– monastegiarentzat 2/3 eta auzokoentzat 1/3) eta epaia ondoren landatutako zuhaitzen zenbaketa egiteko: auzoko bakoitzak 51 zuhaitz eta monastegiak 2.916 zuhaitz. Azkenik, Irailaren 26an epaia ondoren landatutako 2.916 zuhaitz banatzen saiatu ziren, baina ikusita ezinezkoa zela, askok lepatuak eta monastegikoekin nahastuta baitzeuden, trukaketa bat egitea proposatu zen, hain zuzen ere, monastegia 2.916 zuhaitzekin eratuko zen eta, trukean, honek esparru borobilean zituen 750 zuhaitz-motz eman zizkion hiribilduari: Teileria auzoko, Urdazubiko kaleko eta Matabioko 15 auzokoei 206 zuhaitz Errekahandin; Leorlas eta Alkerdiko 26 auzokoei 354 haritz; eta Landibarko 14 auzokoei 190 zuhaitz¹⁹.

Garai honetan, 1765 eta 1785 bitartean luberrien arazoa larritzen ari zen. Haraneko zenbait auzoko, atzerritar eta biztanleak zirenei baserriak eta bordak alokatzen zizkieten, legearen aurka. Honek abereen kopurua bikoizten zuen, jabearenak gehi maizterra-renak. Aurretik ikusi bezala, XVII. mendearen erditik aurrera biztanleen kopurua ia hirukoiztu egin zen, aurreko garaiarekin konparatuta, eta horrela auzokoen pribilegioetatik at zeuden biztanleen biziraupena bermatzen zen. 1775ean 1696ko ordenantzetako 44. eta 61. kapitulak gogorarazi ziren, etxe bakoitzetik abere talde bakarrera mugatuz eta biztanleei uren eta belarren ustiapena debekatuz. Aipatutako azken datan, 1785ean, mendietan bordetatik moldatutako edo berriak ziren baserri asko eraikitzen ari zirela eta, ondorioz, auzokoen urak, belarrak, zuhaitzak eta landaketak kaltetuak gertatzen ari zirela, salatzen zen (Mendicoa Mariezcurrena, 2015, 66-67; Imízcoz Beunza, 1992, 176-186; 2009; Imízcoz Beunza eta Floristán Imízcoz, 1993, 209-213).

Azkenean, 1784 eta 1785ko epaiak indarrean jartzeko, 1788ko urrriaren 12an hiru zatiek, esparru borobilean zituzten ustiapenen inguruan hitzarmen batera ailegatu ondoren eta 1789ko maiatzaren 7an jasotako Errege Agindu baten ondorioz, esparru borobilean monastegiari eta hiribilduari egokitutako zuhaitziak, eta biei Baztan Haraneko herri lurretan landaketak egiteko egokitutako eremuak mugarritu ziren. Lehen kasuan, hiribilduarentzat eratzen zen eremuko 7 mugarriei M (monastegia) eta V (hiribildua) ikurrak jarri zitzaizkien: Azkar, Zubizabala, Sagardiburua, Behoetxea, Masakoleta, Arraba-zelaia, Olaburualdea eta Hualdizun. Bertan 7.528 haritz eta zenbait gaztainondo zenbatu ziren hiribilduarentzat. Trukean, hiribilduak Baztango herri lurretan, Arribeltzaldean, 8 mugarriz mugatutako eremuan eta Lapursaroin eta Masakoletan, 15 mugarri jarritz, zituen 7.528 zuhaitz monastegiari ematen zizkion. Bertan, eta 1789ko Errege Aginduaren ondorioz, erantzuna jaso baino lehen landatutako zuhaitzak ezin izango ziren berriro landatu eta hiribilduarentzat eratuko ziren, honek bere auzokoen artean –monastegia barne, beste auzokoa bezala– bana zezan. Halaber, parrokoari eman beharreko hamarrenagatik gari, arto, zekale, baba, artatxiki, sagar eta liho ekoizpenaren hamarrena eta hasikinengatik berrogeitik bat, hau da, berrogei zatietatik hogeita hamabost jabearentzat eta 5 parrokoarentzat (4 hamarrenagatik eta 1 hasikinengatik) esleitu zitzaizkion. Artaldetik hamarretik bat eta

19 Altzibar-Jauregi-Mitxelena Etxearen Artxiboa, Mitxelena, 45, 526.

berrogeitik bat, eta dirutan bazen 4 erreal hazkuntzarako ardi bakoitzetik eta 11 marai eta kornadoa jateko ardi bakoitzetik; ahuntzengatik hamarretik bat eta berrogeitik bat, eta dirutan bazen 3 erreal hazkuntzarakoengatik eta 11'5 marai jatekoengatik; hazkuntzarako abelgorrien kasuan 9 marai; eta hazkuntzarako txerri bakoitzagatik 13 marai eta kornado, hamarrena eta hasikinengatik. Monastegiaren burdinolan zeuden zuhaitzak ere banatu egin ziren, harriak eta zuhaitzetan ikurrak jarritz; monastegiari egokitutako eremuan Maskotenea eta Gamietea etxeetako zenbait zuhaitz eta iratze geratzen zirenez, monastegiak bi etxeei beste hainbeste eman behar zien trukean, edo, bestela, bere ustiapen eskubidea mantendu zuhaitzak hil arte. Monastegiak bere eremuan itxiturak, lursoro bezala erabiltzeko, egin nahiz gero, aurretik Urdazubiko udalaren baimena eskuratu beharko zuen. Monastegiak Baztango herri lurretan, hain zuzen ere, Arizkuneko Iribarren etxeko bordatik gertu eta Arribeltzalden zituen zuhaitzak erabili zitekeen hiribilduari trukean emateko beharra izanez gero. Urdazubiko auzokoek Baztango herri lurretan monastegiak zituen Otsiast edo Otsitsat, Berzuan, Bagatoa, Bagatxabal, Gurdia eta Olar saroietan, non udan igotako artaldeak egoten ziren, zituzten txabola bakoitzagatik hiribilduak 200 zuhaitz landatu behar zituen, artzaiek behar zuten suegurraz hornitzeko, bakarrik adarrak moztuta, hau da, haritzak eta pagoak lepatuz edo mugarratuz, eta inoiz ondotik, txabolen eraikuntzarako haritzen salbuespenarekin²⁰.

5. DESAMORTIZAZIOA ETA HERRI LURREN PRIBATIZAZIOA

Konbentzioko gerra ostean, 1810ean burdinolen basoek 130.994 zuhaitz zituzten, 654.970 belloizko errealetan baloratuak, urteko lepaketek edo inausketek 2.910 karga emango zituztela, 4 belloizko erreal/kargako, orotara 11.640 belloizko errealeko etekina emanaz. Saiasun eta Otsondoko mintegiek 54.150 aldaxka zituzten, 27.075 belloizko errealetan baloratuak. Bere aldetik, Urdazubiko herriak burdinolen 9.738 haritz zituen, 77.904 errealetan baloratuak, 9 urtean behin lepatzen zirenak, urtean 2.438 karga egur eta 1.354 erreal ekoiztuz. Pixka bat beranduago, 1817an, Monastegiak antzeko emaitzak zituen, alegia, 130.000 zuhaitz, gehienak haritz lepatuak, egur-ikatzerako, urtean 3.000-4.000 karga-egur ematen zituztenak, eta 40.000-50.000 haritz, gaztainondo eta pago mintegi-aldaxka (Zudaire Huarte, 1979, 157 eta 160).

1832an ezarritako udal ordenantza berrietan herri lurrak babesteko neurriak indartu egin ziren, kontuan izanik bere atzerakada, mugarritutakoen mesedetan. Basoen kasuan udal eskumena zabaldu egin zen, batik bat, kasu honetan jada artzainek (aurretik abeltzainak zirenean) sortutako erreketen aurka: erretako eremuetan bazka egitea eta iratzea jasotzea lau urtez debekatzen zitzairen, abere harrapaketa zigorpean (Zudaire Huarte, 1980, 35; Imízcoz Beunza, 1992, 180-189; Imízcoz Beunza eta Floristán Imízcoz, 1993, 207-211). Aipatutako ordenantzak iragarleak ziren, laster, Campomanesen desamortizazioen ondorioz, 1839an, Urdazubiko monastegia abandonatua geratu baitzen, bere eliza Urdazubiko parrokia bihurtuz, eta bere ondasunak eta ondarea salmentan jarri

20 Irulegui-Larreta Etxearen Artxiboa, Larreta-Zavala, Echaide, 129, 3047.

baitziren, monastegiak Baztango herri lurretan landaketak egiteko eskubidearekin batera, Joaquin Fagoaga Laurenzenak –Zugarramurdin jaiotakoa, baina Madrileko auzokoa eta San Fernando Espainiar Banketxeko zuzendaria 1840tik aurrera– erosiz, 1.903.000 errealean truke. 1844ko maiatzaren 20an Joaquin Fagoagaren ordezkariak, bere anaia Juan Martin Fagoagak –1847an Itsasu eta Ainhoarekin sinatutako partzuer-goan parte hartu zuenak–, eta Baztango ordezkariak Elizondon bildu ziren, ezabatutako monastegiak Urdazubiko Teileria eta Arizkuneko Astrearena etxea artean zuen eremuan mugarriak ondo zehazteko eta finkatzeko, eta bertan zeuden zuhaitzak zenbatzeko, denborarekin batzuk erori edo desagertu egin baitziren. Guztira 102 mugarri behatu edo birjarri ziren (López de Guereñu. 1996, 28 eta 38; Donezar Diez de Ulzurrun, 1991, 109, 26. oin-oharra)²¹.

1852ko maiatzaren 17an Joaquin Fagoagaren ondasunak (Urdazubi eta Baztango mendi, larre, etxea eta lursoro) judizialki salmentan jarri ziren, zuzentzen zuen bank-etxean funts-desbideratzea egin ondoren eta Baionako Ignazio Garziak erosi zituen. Urdazubiko ondasun horien tasazioa 1850ko azaroaren 18an egin ziren (burdinola handia, burdinola txikia edo gabiola, errota, Olazelai, Hualdea, Asular, Enpetategia, Mendiondoa eta Ainzaunbordako etxeak eta lurrak, Azura, Azkar, Masakuleta, Zubizelai, Olaldea eta Olazelaiko mendiak)²². Aipatutako urtean, 1852an, José Francisco Etxaide Urdazubin etxeak eta lurrak erosten hasi zen: 1852ko irailaren 10ean aipatutako Baionako Ignazio Garciari Joaquin Fagoagak izandako ondasunak eta azaroaren 3an Baionako Vaille eta Atias merkataritza etxeari Mitxelena etxea bera eta bere lurrak. 1854ko azaroaren 5ean, Jose Francisco Etxaidek, orduan Ziburuko auzokoa, bere botereduna zen Fermin Gurpideren bidez, Urdazubin kokatutako zenbait lur erosi zituen: Sebastian Irigoienek alarguna zen Maria Josefa Iturriari, eta Juan Felipe Etxeberria eta Maria Teresa Lanzi²³. Horrela, 1856an Marcelina Etxebeste, Bergarako auzokoa eta Jose Francisco Etxaideren alarguna, aurkitzen dugu Urdazubiko monastegiaren ondarearen jabe moduan. Urte horretan, legearen aurka, landatzeko eskubidea bazuen ere, bazka eskubideak bermatzen eta errespetatzen baitzitzaizkien, Baztango auzokoei ikatza egiteko pagoak, haltzak, elorriak eta bestelako zuhaitzak mozteko eskubidea debekatu zien. Bi urte beranduago, 1858, gainera, Baztango herri lurretan Arizkuneko Elorga bordatik eta Elbeteako Amoneatik gertu Etxalarko ikazkin bati eman zion baimena bertako haltzekin ikatza egiteko. Urte horretako apirilaren 14an Marcelina Etxebestek Elizalde etxearen inguruko zenbait terreno eta zuhaitz elkartrukatu zituen Juan Martin Fagoagarekin, honek 280 belloizko erreal emanaz balio diferentziagatik²⁴. 1868an Baztango Udalak, beste auzokoei bezala, kontuan izanik ikatz gehienak Frantziara ateratzen zirela, lur-ondare katastroagatik, zuhaitz horien-gatik kontribuzioa ordainaraziz erantzun zion Marcelina Etxebesteri. Udalak monastegiak izandako esparruan 200.000 zuhaitz egongo zirela kalkulatzeko zuen, beraz 1746an, zatitu zirenean, bezala. 1879tik aurrera Ignazio Etxaide Etxebestek, Donos-

21 Irulegui-Larreta Etxearen Artxiboa, Larreta-Zavala, Echaide, 129, 3048.

22 Irulegui-Larreta Etxearen Artxiboa, Larreta-Zavala, Echaide, 130, 3051.

23 Irulegui-Larreta Etxearen Artxiboa, Larreta-Zavala, Echaide, 130, 3052, 3053 eta 3054.

24 Irulegui-Larreta Etxearen Artxiboa, Larreta-Zavala, Echaide, 130, 3056.

tiako biztanleak, Marcelinaren semeak eta Demetriaren anaiak, Olazelaiaren zati bat saldu zion Urdazubiko Miguel Etxart Lapeireri 1.500 pezetan truke, eta beste zatia bertako Anjel Etxenike Fagoagari 2.500 pezetan truke²⁵. 1883ko urtarrilaren 19an Marcelina Etxebeste Sorondok, bere semealabekin, Ignazio eta Demetria, 1855ko apirilaren 3an zendutako Jose Francisco Etxaidek Etxalarren, Urdazubin, Arantzan edo Lesakan zituen ondare higiezinaren inbentario egin zuten Jabetza Erregistroa erroldatzeko –azkenean 1885an– (Urdazubin, besteak beste, Mitxelena, Auzanborda, Mendiondoa, Axular, Ugaldea, Beortegiko baserria, Izalarazkar Etxarrantxeta, Argandoita, Zubizabal edota Barreta mendiak eta 1889an Anjel Etxenikeri saldutako errota, burdinola handia, irin errota, Olazelai, Olalde, Masakoleta, eta abar). Etxaidetarrak, Urdazubiren zenbait lur erroldatzen saiatu ziren, baina justu Lapursaroi mendia, bi eremu borobilak, eta 24 saroi ezin izan zituzten erroldatu, ez baitzuten egiaztatu oso-osorik Etxaiderenak zirenik –partzialki bere jabegokoak, ikusiko dugun moduan–. Ziurrenik mugimendu horrek bazuen zerikusia ondasunen zati bat saltzeko asmoarekin, Demetria Etxaidek Urdazubin zituen eremuak eta saroiak salmentan jartzea proiektatu zuen, %3ko interesarekin eta 12 urteetan erosiak izateko: 26 borda eta 3.800 zuhaitz eta 22 eremuetan kokatuak (Amutza, Amutzabuztan, Osias edo Otsisat, Zurrunzuri, Basandegi, Unsus, Ikatzastea, Elordui, Txapalenekobordaldia, Zalditxuri, Katalinekobordaldea, Lapursaroi, Amutzeko parte baja, Osias edo Otsisat parte baja, Zurrunzuri parte baja, Basandegi parte baja, Mitxolenekobordaldea, Zuzaz, Zubizabal, Putikonaldea, Bigotxe eta Arizamalentxarranaldea). Aipatutako hamabi urte horietan, bertan zeuden haritz-motzen mozketatik 29.418-29.719 karga ikatz eta 46.019-46.175 pezeta (3.831-3.841 pezeta urtean) ateratzea aurreikusten zuen, eta 360 area zabalera zuten saroiengatik 6.840 pezeta; orotara 134.205 pezeta lortzea espero zuen. Azkenean, aipatutako eremuak 125.000 edo 140.000 pezetetan saltzea proiektatu zuen, baina 14 urteetan.

Garai hartan, 1863an, Baztango udalak Urdazubi eta Zugarramurdiren arteko iratze eremua, non Baztango auzokoei bordak edukitzeko aukera ematen zitzairen (orduan bi edo hiru borda zeuden), gutxi gora behera 8 km², Zugarramurdiri alokairuan ematen zion 640 belloizko errealean truke, baina bertako bazka Baztango auzoko guztientzat zen. Iratze horien zati bat Sarako biztanleek eramaten zuten. 1864ko martxoaren 12an Nafarroako Probintziako Salmenta Batzarrak hartutako akordio batek Urdazubiko eta Baztango herri lurak salbuetsi zituen. Garai hartan Baztango herriak 1.845 su, hau da, 9.479 biztanle zituen, 500 biztanle galdu zituela aurreko zentsotik (1852an 9.961 biztanle zituen [Arizcun Cela, 1988a, 262]), Amerikarako emigrazioa kontuan izanik (Idoate Ezquieta, 1989; Idoate Ancín, 2020). Azken hau ekidin ahal izateko, Baztango udalak Nafarroako Aldundiari eskatzen zutenei herri lurretan 25 urterako luberriak egiteko baimena ematea eskatu zion, askea geratuz bi urtez landu ezean. Mendi Zuzendaritzak Baztango 47 auzokoei eskaerak ikusita baieztatzaren alde agertu zen 1868ko irailean, baldin eta 25 urterako baziren, urtean diru kopuru bat ordaindu eta epea bukatuta ustiapen komunaleri bueltatzen baziren, eta auzoko batetik bestera pasa ezean. Baina Aldundiaren aholkularia beldur zen eskatzaileek azkenean bere

25 Irulegui-Larreta Etxearen Artxiboa, Larreta-Zavala, Echaide, 130, 3055.

jabegora pasako ote zituzten lur horiek eta bazka eskubideak murriztu, are gehiago kanon bat ordainarazten bazitzaien, horregatik alde agertzen zen, baina baldintza batekin: luberriak egiteko lurrak ezin izango ziren hesitu edo itxi. Azkenean 1868ko urriaren 27an, Nafarroako Aldundiak luberriak ematea erabaki zuen, baina aholkulariak ezarritako baldintzetan, hau da, lurrak itxi gabe. Horrela Baztango Haranaren udal ordenantzak errespetatzen ziren: 1696ko martxoaren 27koak; 1733ko uztailaren 21an zabalduak; 1827ko abenduaren 27 aldatuak, 1832ko uztailaren 14an berretsiak eta 1832ko abenduaren 15ean argitaratuak. Beraz, Nafarroako Aldundiak 1867ko uztailaren 2an ezarritako zirkularrak ez zituen Baztango herri lurren gaineko eskubideak aldatu²⁶.

1888an Urdazubiko mendien planoak egin ziren. Sebastian Askobereta Berroetako perito lur-neurtzaileak bi eremu borobil eta bertan zeuden 16 saroi –Etxaditarrek, nolabait, bereganatzen saiatu zirenak–, baserriak, zuhaitz, larre eta landatzeko eremuak, harizti-motz bat, eta esparru borobiletik at zeuden pagoz jositako bi saroi neurtu, mugarritu eta planimetria altxatu zuen: lehen eremu edo koto borobilean 5 saroi zeuden, lau haritz-motzek osatua eta beste bat pagoz eta larrez osatua, Ignazio Etxaideren jabegokoak (Olakoerdiko, Amuna, Amunabuztan, Zurrunzubi eta Barrentxekobordaldekoa), eta 4 baserri (Arizkunen Irebarnea goitikoa eta Irebarnea Betikoa, Azpilikuetan Bordatxun, Barrentxekoborda eta Amusalepo); bigarrean haritz-motzez beteriko 11 saroi, horietako 8 Baztango Haranarenak (Urkizelai, Azpilekobordaldekoa, Indaburukobordaldekoa, Arsua, 2 Azkaraldekoa, Azkarpartebeitikoa eta Zaldinzurikobordaldekoa) eta 3 Ignazio Etxaiderenak (Unsus, Ikazartekobordaldekoa eta Kataliñenekobordaldekoa), gehi 18 baserri²⁷.

6. ONDORIOAK

Testuan zehar ikusi den bezala, Urdazubi eta Zugarramurdiko ekonomia, Baztango Haranekoa bezala, basogintzan, abeltzaintzan, burdingintzan eta nekazaritzan oinarritu zen. Mendeetan zehar, Urdazubi eta Zugarramurdiren arazorik nagusiena mendi propiorik ez izatea izan zen, eta, ondorioz, Baztan Haraneko herri lurrak ustiatzera behartua zeudela, baina era mugatuan, ez auzoko bezala, hori monastegiari baitzegokion. Mendi eta eremu propioak XVIII. mendean izan zutenean ere, Baztango herri lurren gaineko beharra mantendu egin zen, propioetan zituenak ez baitziren inoiz nahikoak izan beren eta bere populaketaren beharrak asetzeko.

Orohar, bertako aberetaldeek tokian tokiko trashumantzia edo inguruko herrien arteko trasterminantzia egiten zuten –hortik partzuergoen edo fazerien garrantzia–, udan haranetako ondoetatik mendi goialdeetara, eta alderantziz neguan; behien kasuan, maiatzaren 3tik azaroaren 11ra arte egoten ziren, laborantza abereak (idiak eta behiak) irabelarretan egoten ziren bitartean. Zenbait kasuetan ere Alduide eta Orre-

26 *Libro que contiene las sentencias obtenidas por el Valle de Baztan en 1440...* 39-42 eta 83-92.

27 Irulegui-Larreta Etxearen Artxiboa, Larreta-Zavala, Echaide, 130, 3073.

agaraino ailegatzen ziren, edota Iparralde edo Frantzia aldeko mendietara, iparraldekoek hegoaldeko mendietara joaten ziren bitartean; herri lurretan aritu zezaketen txerrien kopurua baso ezkurren arabera ezartzen zen, baina ezkur nahikorik ez zegoe-nean guztientzat, San Migeletik San Andresera arte, Alduidetara bideratzen zituzten bertako basoetan mantendu ahal ez zirenak. Gainera, bertako abereei egunez nahiz gauez bazkatzen uzten zitzairen, atzerritarrek, ordea, eguzkitik eguzkira zuten mugatuta, eta gauean beren baserri, txabola eta bordetara bueltatu behar ziren. Baina sarioiek –urtarokotasuna ere ezartzen zutena, uda eta neguko sarioiak ezberdinduz– muga hori gaindi zezaketen, herri lurretara ateratako abereak bertara bueltatu behar baitziren, beren jatorrizko baserri edo lekuetara bueltatu gabe. Horregatik zen hain estimatua bere jabegoa edo ustiapena. Behiak eta txerriak taldean eraman behar ziren larreetara, ez banaka edo jabego bakoitzak bere kabuz. Talde horiek kudeatzeko unaimazterrak kontratatzen ziren, bere agindupean, abeltzainak eta morroiak izanik (Aragón Ruano, 2009a eta 2009b). Abere taldeen arteko oreka eta mendien jasangarritasuna mantentzearen, artaldean kopurua mugatzea erabaki zen; hauek, gainera, abelgorriei eta txerriei estropozurik ez egitearren, maiatzaren 14tik ekainaren 25ra arte egoten ziren herri lurretan. Dena den, XVI. mendetik aurrera artaldeak zabaltzen joan ziren, eta, ondorioz, aurretik behientzat edo idientzat erabiltzen ziren sarioiak, XVIII. mendean artaldeak bazkatzeko erabili ziren.

Basogintzari dagokionez, herri lurretan txaradiak nagusi izan ziren XVII. mendera arte, Euskal Herriko beste eskualdeetan bezala, batik bat burdinolen beharrak asetzeko (Aragón Ruano, 2009c, 73-105 eta 2013, 43-48). Baina, aldi berean, erai-kuntza eta abeltzaintzaren beharrei aurre egiteko, sistema osagarri bat ezarri zen eta txaradietan 15 metroko haritz luze edo tantai bat utzi behar zen, 1584tik aurrera. Bakandutako haritz horiek, beranduago inausi egingo ziren, 9 urtean behin adarrak moztuz, *horca y pendón* uzteko aginduarekin, hau da, zuhaitz lepatuak edo ipinabarroak bihurtuko ziren. Sarioietan, berriz, zuhaitz motzak nagusitu ziren, hau da, epe batean inauten zirenak. Honen harira, testuan ikusteko aukera egon den bezala, XVII. eta XVIII. mende bitartean astiro-astiro txaradiak zuhaitz motzak bihurtu ziren, hauek baso guztietan nagusiak izanik, handik aurrera eta XVIII. eta XIX. mendeetan zehar. Bukatzeko, demografia, nekazaritza, abeltzaintza eta burdingintzaren hedakuntzaren ondorioz, ezarritako sistemak ez ziren nahikoak izan basoaren jasangarritasuna mantentzeko XVIII. mendetik aurrera –bai ordurarte–, horregatik bi neurri hartu ziren: alde batetik, aipatutako aldaketa eman zen baso-ereduan, hau da, txaradien nagusitasunetik zuhaitz motzen edo lepatuen gailentasunera pasa zen, eta, bestetik, baso geruza berreskuratzeko baso-berritze programa bat eraman zen aurrera, bai herri lurretan bai sarioietan. Basoberritze hori arrakastatsua izan zen basoen etengarritasuna XIX. mendearen azken hamarkadetaraino mantendu baitziren, Etxaidetarren kalkuluek edota garai batean monastegiaren esparru borobilean XVIII. eta XIX. bitartean zuhaitz kopurua 200.000 inguruan mantendu izana egiaztatzen duten moduan.

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Aragón Ruano, Á. (2009a). *La ganadería guipuzcoana durante el Antiguo Régimen*. EHU/UPV.
- Aragón Ruano, Á. (2009b). Una historia forestal inédita: las ordenanzas de Zumarraga de 1547, un ejemplo de desarrollo sostenible en el siglo XVI guipuzcoano. *Vasconia: Cuadernos de Historia-Geografía*, 36, 155-198.
- Aragón Ruano, Á. (2009c). Una longeva técnica forestal: Los trasmochos o desmochos guiados en Guipúzcoa durante la Edad Moderna. *Espacio, tiempo y forma. Serie IV, Historia moderna*, 22, 73-105.
- Aragón Ruano, Á. (2013). En pos de la sostenibilidad: cambios en la gestión forestal guipuzcoana durante la Edad Moderna. *Cuadernos de la Sociedad Española de Ciencias Forestales*, 38, 43-48.
- Aragón Ruano, Á. (2019). «Ríos de madera». Recursos forestales e hídricos para la Real Armada durante el siglo XVIII en Guipúzcoa y Navarra. *Tiempos modernos: Revista Electrónica de Historia Moderna*, 9(39), 426-455.
- Arizcun Cela, A. (1988a). Las fuentes para el estudio de la población navarra del antiguo régimen: un análisis crítico de las referidas al Valle de Baztán. *Príncipe de Viana*, 184, 247-302.
- Arizcun Cela, A. (1988b). *Economía y sociedad en un valle pirenaico del Antiguo Régimen. Baztán 1660-1841*. Príncipe de Viana.
- Donezar Diez de Ulzurrun, J. M. (1991). *Navarra y la desamortización de Mendizábal (1836-1851)*. Gobierno de Navarra.
- Galbete Guerendiáin, V. (1953). Algunas medidas empleadas en el antiguo Reino de Navarra. *Príncipe de Viana*, 52-53, 395-400.
- Goñi Gaztambide, J. (2008). El monasterio premonstratense de Urdax en la Edad Media (1182-1520). *Príncipe de Viana*, 245, 703-721.
- Idoate Ancín, R. (2020). *Emigración de la Navarra atlántica a América en el siglo XIX (1840-1874)*. Universidad Pública de navarra.
- Idoate Ezquieta, C. (1989). *Emigración navarra del Valle de Baztán a América en el siglo XIX*. Gobierno de Navarra.
- Imízcoz Beunza, J. M. (1992). Tierra y sociedad en la montaña de Navarra: los comunes y los usos comunitarios del Antiguo al Nuevo Régimen: siglos XVIII-XX. *Príncipe de Viana, Anejo*, 16, 175-189.
- Imízcoz Beunza, J. M. (2009). Voisinage et habitat dans les communautés des Pyrénées occidentales entre le XVe et le XVIIIe siècles: de la croissance au blocage. En J.-P. Barraqué & P. Sénac (ed.), *Habitats et peuplement dans les Pyrénées au Moyen Âge et à l'époque moderne* (pp. 327-352). Université de Toulouse II Le Mirail.
- Imízcoz Beunza, J. M. (2018). Los dos significados de la hidalguía universal según el modelo baztanés. En A. Dacosta, C. Jular Pérez-Alfaro & J. R. Díaz de Durana Ortiz de Urbina, *Hidalgos e hidalguía en la península ibérica: (siglos XII-XV)* (pp. 385-410). Marcial Pons.
- Imízcoz Beunza, J. M. & Floristán Imízcoz, A. (1993). La comunidad rural vasconavarra (ss. XV-XIX): ¿un modelo de sociedad? *Mélanges de la Casa de Velázquez*, 29(2), 193-216.

- López de Guereñu, M. T. (1996). El monasterio premonstratense de San Salvador de Urdax: génesis y evolución histórico artística. *Príncipe de Viana*, 207, 19-60.
- Mendicoa Mariezcurrena, M. A. (2015). *Recursos forestales en el Valle del Baztán en la época moderna: ordenamiento, aprovechamiento y conflictividad*. Universidad Pública de Navarra [Master Amaierako Lana].
- Zudaire Huarte, E. (1967). *Facerías de la cuenca Baztán-Bidasoa*. Diputación Foral de Navarra.
- Zudaire Huarte, E. (1979). Ferrerías del Real Monasterio de Urdax. *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 31, 125-178.
- Zudaire Huarte, E. (1980). Ordenanzas baztanesas. *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 34, 5-70.